

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA SAILA  
Hezkuntza Sailburuordetza  
Hezkuntza Ikuskaritza Nagusia

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
Viceconsejería de Educación  
Inspección General de Educación

# **HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA**

## **2021 – 2022 IKASTURTEA**

### **EAE-ko HEZKUNTZA IKUSKARITZA**



## AURKIBIDEA

<b>1.- SARRERA.</b>	<b>2</b>
<b>2.- TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA.</b>	<b>3</b>
<b>3.- 2021-2022ko PLANAREN HELBURUAK.</b>	<b>8</b>
<b>4.- 2021-2022 IKASTURTEKO JARDUERAK: Hezkuntzako Ikuskaritza kudeatzeko sistema. Oinarrizko esku-hartze ildoak eta jarduera esanguratsuenak.</b>	<b>14</b>
<b>5.- IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA. IKUSKARI FUNTZIOAREN EBALUAZIOA.</b>	<b>35</b>
<b>6.- IKUSKARITZAREN ANTOLAKUNTZA.</b>	<b>37</b>
<b>7.- 2021-2022 URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA. EGUNERATZEA.</b>	<b>39</b>
<b>8.- ERANSKINAK</b>	<b>41</b>

### **I. ERANSKINA:**

Ikuskaritzak zentroetan egiten dituen esku-hartzeen kronograma. 2021-2022 ikasturtea.

### **II. ERANSKINA:**

Erantzukizunak esleitzea eta zereginak zehaztea.

### **III. ERANSKINA:**

Urteko helburuak 2021-2022: lorpen-adierazleak/jarduerak/arduradunak/datak.

### **IV. ERANSKINA:**

Funtsezko jarduerak urteko helburuekin eta inplikaturako prozesu edo azpiprozesuekin lotzea.

### **V. ERANSKINA:**

2021-2022 prestakuntza-planeko ekintzak.

### **VI. ERANSKINA:**

Gogobetetze-inkesten emaitzak.

### **VII. ERANSKINA:**

Auditorien emaitzak eta Euskaliten kanpo-kontrastea.

### **VIII. ERANSKINA:**

Ikuskaritzako zonak.

### **IX. ERANSKINA:**

Urteko planaren aldaketak.

Ikaskuntza, berrikuntza eta hobekuntzako mugarriak.

### **X. ERANSKINA:**

Glosarioa.

## 1.- SARRERA

Hezkuntza Ikuskaritzako Planak EAEko Hezkuntza Ikuskaritzako zerbitzuak bere idiosinkrasia definitzen duten misio, ikuspegi eta balioen esparruan esleituta dituen funtzioak garatzeko dituen tresnak dira. Horren arabera, hiru urteko planen bidez egiten du plangintza estrategikoa, eta plan horien helburuak eta jarduketa-ildoak urteko planen bidez zehazten dira.

Aurkezten dugun 2021-2022 Urteko Plan hau, aurreko ikasturtean egindako bidearen ondorengo urratsa da, 2020-2023 hirurtekorako planteatutako helburuak lortzeko eta, horrela, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak hezkuntza-komunitateari eskaintzen dion zerbitzua hobetzen jarraitzeko. Horretarako, aurtengo plana, besteak beste, honako hauetatik abiatzen da: 2020-2021 urteko planaren ondorioetatik, zuzendaritzak berrikuspen-txostenean jasotakoetatik, eta, bereziki, ikuskatze-memorian hezkuntza-sistemaren egoerari buruz aurkezten diren datuetatik. Memoria hori ikuskatze-txosten horren parte da.

Halaber, Ikuskaritza Zerbitzuaren misio, ikuspegi eta balio berriek -ikuskeri guztien parte hartzearekin joan den ikasturtean eguneratuak- eta zerbitzuen katalogoak -duela gutxi egin eta Sailaren web-orrian argitaratu dena- urteko plan hau gidatu beharko dute.

Gainera, kontuan hartuko dira Hezkuntza Saileko sailburuordetza eta zuzendaritzen ildo estrategikoak, Lurralde arteko Koordinazio Batzordearen eta ikuskatze batzordearen balorazioak, ikuskerien gogobetetze-mailari buruzko inkestetan jasotako emaitzak, ikuskatze-jardueren hartzaileen inkestetatik lortutakoak eta auditoretzen emaitzak. 2020-2021 ikasturtean, barneko eta kanpoko auditoretzez gain, kanpoko kontraste bat egin zuen Euskalitek, eta, hobekuntza proposamen interesgarriak jaso ziren.

2021-2022 urteko plan hau COVID-19 osasun-pandemiaren egoera mantentzen den testuinguru batean hasten da, baina normaltasun-egoera baterantz aurrera egiten ari dela ikusten da. Une honetan, ikasitakoa aprobetxatuz, arriskuak aztertzeko eta sortzen jarraituko duten erronkei azkar eta eraginkortasunez erantzuteko estrategia sistematikoak bultzatu behar ditugu. Halaber, dinamikak ezarri behar dira, hezkuntza-sistemaren hobekuntzan Ikuskaritza-jarduketan inpaktua eta balio erantsiaren ekarpena areagotzeko.

Ahaleginak egiten jarraitu behar dugu gure jarduera guztien eraginkortasuna hobetzeko eta hezkuntza-sistema osatzen duten pertsonen eta zerbitzuen beharrei ematen zaien erantzunaren kalitatea bermatzeko.

Ikuskaritzan sartzen ari diren ikuskari berriek aurre egin beharko diete hezkuntza-komunitateak Hezkuntza Ikuskaritzari eskatzen dizkien erronkei. Horretarako, beharrezkoa da garapen profesionala, inplikazioa eta kide izatearen sentimendua bultzatzen jarraitzea, bai eta etengabeko hobekuntza bermatuko duten ebaluazio- eta autoebaluazio-prozesuak sistematizatzea ere.

Helburu horiek lortzeko, funtsezko tresnak izango dira EAEko Ikuskaritza kudeatzeko sistema -UNE-EN ISO 9001:2015 arauarekin bat datorrena-, ikastetxeak hobetzera bideratutako esku-hartze eredua, V92 Ikuskaritzaren aplikazio informatikoa, bestelako baliabide digitalak (Office 365), komunikazio- eta prestakuntza-prozesuak eta, bereziki, Ikuskaritza-plantilla osoaren inplikazioa.

Dokumentu honek, aitzinsolas baten eta testuinguruaren azterketa baten ondoren, 2021-2022 ikasturterako planteatutako helburuak eta horiek lortzea erraztuko duten oinarritzko jarduera-ildoak aurkezten ditu. Antolaketa-alderdiak, zerbitzuko kideen prestakuntza-plana eta urteko plana bera ebaluatzeko eta doitzeko prozedurak ere jasotzen dira.

## 2.- TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA

2021-2022 urteko planaren plangintza honako testuinguru-elementu hauek baldintzatuko dute bereziki:

### a) COVID-19k eragindako osasun egoera

Gaur egungo egoera epidemiologikoak ikastetxeetan esku-hartze hurbila eta intentsiboa eskatzen jarraitzen du, bai eta hezkuntza-administrazioko arduradunekin lankidetzara estua izatea ere.

Hezkuntzako Ikuskaritzak irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua behar bezala garatzen dela zaindu behar du, eta guztion hezkuntza-eskubidea bermatu behar du, osasun-segurtasuneko testuinguru batean. Ikastetxeei ere lagundu behar die aurrekusi gabeko egoerei aurre egitea ahalbidetuko duten estrategiak ezartzen. Estrategia horiek sormen-ahalegina eta jarrera berritzailea eskatuko dituzte, erronka berriei erantzuteko.

Hezkuntza-administrazioko arduradunei Covid-19 egoerak ikastetxeetan duen eraginaren eta gainbegiratze-prozesuetan ikusitako beharren berri ematen jarraituko da, erabakiak hartzea errazteko.

### b) Aldaketak ikuskaritzako plantillan

Ikuskaritzako plantillaren aldaketak, ikuskariak zonetara esleitzeko aldaketak –aurreko ikasturtean egin zen zonaldeko burutzak esleitu aurreko beharrezko prozesuaren ondoren– eta, ondorioz, zentroen esleipenean izandako aldaketak kontuan hartu behar dira ikasturte honetako zereginen plangintzan.

Gainera, datozen urteetan jubilazio kopuru esanguratsua aurreikusten denez, arreta berezia jarri behar da erakundeak ezagutza galtzeko duen arriskua ahal den neurrian saihesten edo arintzen lagunduko duten estrategietan.

Planteatzen diren erronka berriei aurre egiteko, beharrezkoa da ikuskariok ezagutza eta esperientzia izatea. Hori dela eta, ezagutza eta esperientzia hori ahalik eta arinen eskuratzea ezinbestekoa da aipatu erronkei ekiteko. Beraz, tutoretza, prestakuntza, autoebaluazio eta hautapen prozesuetan lan egiten jarraitu behar dugu, zerbitzuaren beharretara eta hezkuntza-komunitateari eskaini behar dion erantzunera ondo definitutako eta egokitutako gaitasunak erreferentziazat hartuta. Gaitasun horiek zehaztuko dituen profila eguneratzen jarraitzea ikasturte honetan landu beharreko beste zeregin bat izango da.

### c) Ikastetxeetatik eta hezkuntza-administrazioko beste zerbitzu batzuetatik datozen eskarien kopurua eta konplexutasuna handitzea.

Ikuskaritza-zerbitzuak programatutako jardueraz gain, lankidetzara jarduerak egiten dira administrazio-prozesuen kudeaketan, prestakuntza-prozesuetan, herritarren eskakizunei erantzuteko lanetan, etab.

Hori dela eta, Ikuskaritza-zerbitzuak ahalik eta eraginkortasun handiena bilatu behar du bere zereginetan, eta lehentasun-irizpideak ezarri behar ditu bere jardueren garapenean.

2020-2021 Ikasturtean ikuskaritza-jardueren helburuak eta eraginkortasuna berrikusteko prozesua hasi zen, eta ikasturte honetan zehar jarraitu behar du.

Ikuskatzean garatzen diren jardueren edo azpiprozesuen eraginkortasun-, efizientzia- eta doikuntza-maila errazteko tresna bat prestatu zen. Tresna hori 5 azpiprozesutan aplikatu zen. Ikasturte honetan, beste jarduera batzuetan aplikatzen jarraitu beharko da, eta iazko ikasturtean aplikatu ziren jardueretan egondako ondorioak eta hobekuntza-proposamenak inplementatu beharko dira.

#### **d) Hezkuntza Sailaren planak eta programak**

Hezkuntza Ikuskaritzaren eginkizunetako bat da Hezkuntza Sailak sustatutako programen jarraipena egitea, lortu nahi diren helburuen lorpen-maila egiaztatzeko. Gainera, helburu horietako asko diseinatzen eta garatzen laguntzen du.

Hona hemen plan eta programa aipagarrienetako batzuk: Eraldatzen Programa; Eusle-Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna indartzea; Hauspoa; Digitalizazio Plana; Zuzendaritza eta Lidergoa; Curriculum sozioemozionala (CSE); Metodologia berriak; Bizikasi ekimena; Curriculumaren plangintza eta ebaluazioa; zeharkako kompetentzien garapena; tutoretza-planak; lege organiko berriaren ondoriozko arauaren garapena (curriculumaren garapena, ebaluazioarena...).

Ikuskaritza-plantillaren prestakuntza-prozesuei ekin beharko zaie, bai eta dagozkion jarraipen- eta ebaluazio-jardueren diseinuari ere.

#### **e) Ikuskatze Memoriaren ondorioak.**

Zuzendaritzak egindako berrikuspen-txostenak, eranskinetan, ikastetxeetan egiten diren jardueren emaitzen memoria (ikuskatze-memoria) jasotzen du. Bertan, talde arduradun bakoitzak proposamenak egiten ditu Ikuskaritzaren esku-hartzea hobetzeko eta, hala badagokio, birbideratzeko. Gainera, hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko datuak eta ondorioak jasotzen dira.

#### **f) Gogobetetze-inkestak**

Urteko Ikuskaritza Planean jasotako jardueri eta ikastetxeetan egiten diren moduari buruzko iritzia jasotzeko, besteak beste, ikuskariei, administrariei, ikastetxeei eta Administrazioaren beste zerbitzu batzuei zuzendutako gogobetetze-inkestak erabiltzen dira. Galdetegi anonimo horien bidez jasotako informazioa ikuskatze-batzordean aztertzen da, eta bereziki kontuan hartzen dira interes-talde bakoitzak egindako proposamenak.

Dokumentu honen VI. eranskinean lortutako emaitzen laburpena jasotzen da.

#### **g) Auditoretzen eta EUSKALITen kanpo-kontrastearen emaitzak**

Plan honen helburuak formulatzean, kontuan hartu dira barne- eta kanpo-auditorien emaitzak, bai eta EUSKALITek egindako kanpo-kontrastea ere, Eusko Jaurlaritzak euskal erakundeetan Kudeaketa Aurreratua eta Garapen Iraunkorra sustatzeko bultzatutako fundazioa baita.

Dokumentu honen VII. eranskinean emaitza horien laburpena jasotzen da.

#### **h) Digitalizazio-prozesuetan aurrerapenak. Tresna informatiko berriak.**

2020-2021 ikasturtean, gorakada nabarmena gertatu zen ordura arte ia erabili ez ziren tresna informatikoen erabilera: Office 365 (SharePoint, Forms, Teams...). Ikasturte honetan, tresna horiek edo beste batzuek Ikuskaritza-zerbitzuari eskaini diezazkioketen aukera berrietan sakondu behar dugu. Ildo horretan, orain arte landu ez den aukera berri bat pilotatuko da, 2020-2021 ikasturtean jarraipena behar izan zuten eskola-jazarpeneko kasuei erreparatzeko: V92a Irakaslegunea/Hezigunea



plataformarekin konektatu nahi da, kasuaren bilakaerari buruzko informazioa lortu ahal izateko. AZ023387tik informazio zehatza emango zaie langileei.

Ikasleen absentismoa kudeatzeari dagokionez, arreta ez-presentzialaren eremuan, jarraipen sistematikoa egingo da *Forms-en* bidez eta *Kalifikazioak eta Hutsegiteak* aplikazioan horretarako berariaz garatutakoaren bidez. AZ020286 lan-taldetik jarraibide espezifikokoak eskainiko dira.

Lurraldeetako kanpoko eskarien (presentzialak zein telefonikoak) kudeaketan, aurreko ikasturtean Araban gidatutako prozedura ezartzen jarraituko da gainerako lurraldeetan.

#### **i) MIB berria eta Zerbitzuen Katalogoa**

2020-2021 ikasturtean Ikuskaritzaren misioa, ikuspegia eta balioak berrikusi ziren, Ikuskaritzako kide guztiek parte hartu zuten lan-saioen bidez.

Gainera, Zerbitzuen Katalogo bat egin zen, hezkuntza-komunitateko sektore bakoitzari Ikuskaritzak ematen diona ezagutarazteko. Ikasturte honetan dagokion hedapen-prozesuari heldu behar zaio.

Ildo beretik, ikuskatze-prozesuen mapa berrikusteari ekingo diogu, mapa hori aipatutako berrikuspen-prozesuan hartutako dokumentu eta erabakiekin koherentea dela ziurtatzeko.

#### **j) Arau-ingurumari berria.**

2020-2021 ikasturtean Hezkuntzari buruzko Lege Organiko berria (LOMLOE) argitaratu zen. Horrek arau-garapen handia ekarriko du, bai oinarritzko mailan, bai eta erkidegoan ere.

Erkidegoko araudia garatzen den bitartean, Hezkuntza Ikuskaritzak garapen- edo/eta aholkularitza-prozesuetan esku hartuko duela aurreikusten da.

Gainera, beharrezkoa izango da ikuskari guztiei zuzendutako prestakuntza-prozesuei ekitea, ikastetxeei arau-aholkularitza emateko lana ahalik eta eraginkortasun handienarekin egin dezagun.

#### **k) 2020-2021 ikasturtean garatutako prestakuntzaren emaitzak eta Ikuskaritzako langileek adierazitako behar berriak.**

Egindako gogobetetze-inkestetan, ikuskariak hainbat prestakuntza-eremu proposatu zituzten, eta, horien artean, honako eremu hauek nabarmentzen dira: prestakuntza juridikoa eta hezkuntza-araudia; langile publikoen diziplina-araubidea; bitartekaritza; plataforma informatikoen erabilera; ikastetxeen ebaluazioa; irakaskuntza-gaitasunen ebaluazioa; zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa; gaitasunetan oinarritutako curriculum-ebaluazioa; irakasteko eta ikasteko metodologia berriak; Ikuskaritza-txostenak hobetzeko eta lan-kargak kudeatzeko estrategiak, etab.

## **I) Beste lorpen edo produktu garrantzitsu batzuk**

2020-2021 ikasturtean, hainbat dokumentu egin ziren, eta aurrera egin zen prozedura hauetan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren zerbitzuen katalogoa eta Misioren, Ikuspegiaren eta Balioen berrikuspen berria.
- Web orria eguneratzea.
- Irakaskuntzako kompetentzia-profilaren dokumentu deskribatzailea.
- Ikuskaritza-eginkizunaren kompetentzia-profilaren bertsio berria.
- Ikuskaritza-eginkizunaren kompetentzia-profila erreferentziatzat hartuta, zerbitzu-eginkizunetan dauden ikuskariak ebaluatzeko eta praktiketako ikuskariak autoebaluatzeko dokumentua.
- AZen eraginkortasun-proiektua: Ikuskaritzaren egungo prozesuen efikazia eta efizientzia berrikusteko dokumentua.
- Ikuskatzarien nahiak eta zaletasunak jasotzeko dokumentua.
- Excel aginte-taula, urteko planaren helburuen jarraipena egiteko.
- Hezkidetza: prestakuntza-pilulak.
- Ezagutza transmititzeko plana.
- Zerbitzuan sartzen diren pertsonen tutoretza-plana (harrera-planaren zati gisa)

Ikasturte honetan beharrezkoa izango da horietako batzuei jarraipena ematea eta dagozkionak ebaluatzea.

Faktore horiek kontuan hartuta, hurrengo puntuak azaltzen diren helburuak planteatzen dira. Hala ere, azpimarratu behar da horiek hezkuntza-sistemaren premia aldatzeko erantzun egokia emateko egoerak eskatzen duen zuhurtziaz eta malgutasunez landu behar direla.

### 3.- 2021-2022 URTEKO PLANAREN HELBURUAK

Jarraian, 2021-2022 urteko helburuak aurkezten dira, 2020-2023 hiru urteko planaren helburu bakoitzari lotuak.

Hiru urteko 1. helburua:
<p>1.-Hezkuntza Ikuskaritzak indarrean dagoen araudiak hezkuntza komunitateari aitortzen dizkion <b>eskubideak eta betebeharrak bermatzeko</b> egiten duen ekarpenean aurrera egitea, honako hauen bitartez:</p> <p>1.a- Egoera espezifikoetara egokitzeko prozedurak ezartzea (adib.: covid-19)</p> <p>1.b- Egungo prozedurak eta, bereziki, bizikidetzarekin lotutakoak berrikustea, haien <b>eraginkortasuna eta eragina</b> egiaztatze eta handitzeko.</p> <p>1.c-<b>Administrazioari proposamenak</b> egitea, indarrean dagoen araudiaren edukia eguneratu eta hobetu dadin sustatzeko</p>
2021-2022ko helburuak
<p>-Hezkuntza Administrazioari COVID-19ak ikastetxeetan duen eraginaren berri ematea, hezkuntzarako <b>oinarrizko eskubidea bermatzeko erabakiak</b> hartzeko (1.a)</p> <p>- Ikastetxeetan COVID-19 neurrien betetze-mailari buruzko informazioa izatea, sars-cov-2aren aurrean <b>osasunerako eskubidea</b> bermatzeko, eta hezkuntza-administrazioari erabaki-organoei informazioa ematea. (1.a)</p> <p>- <b>Hezkuntza prozesuak</b> COVID-19ak eragindako egoera epidemiko-sanitarioari egokitzeko Sailak ezarritako ezohiko neurriak betetzen direla egiaztatze prozeduren diseinua eta garapena. (1.a)</p> <p>- Hezkuntza-administrazioari ikastetxeetako <b>bizikidetzaren</b> egoeraren berri ematea, erabakiak har ditzan, hezkuntzarako oinarritzko eskubidea bermatzeko aldera. (1b)</p> <p>- Ikuskaritzak egiten dituen eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko bermearekin lotutako zereginen <b>doikuntza-mailari buruzko informazioa izatea</b> (absentismoa kontrolatzea, euskara-salbuespenak kontrolatzea, aniztasunarekiko arreta eta ekitatea sustatzeko programen jarraipena egitea eta ACLak kontrolatzea, eskola-jazarpeneko kasuen jarraipena egitea...) <b>2020-2021 ikasturtean ezarritako eraginkortasun- eta eragin-irizpideetara</b>, eta zeregin horiek hobetzeko neurriak zehaztea. (1.b)</p> <p>- Ikasleen ebaluazio objektiborako eskubidea bermatzeko estrategia eraginkorrek eta baliozkotuak izatea, presentzialtasun-egoeran zein ez-presentzialtasun-egoeran. (1.b)</p> <p>- Kalifikazioak berrikusteko prozesu estandarizatu bat izatea, kalifikazio horiek % 90eko arrakastarekin ebatzi ahal izateko.</p> <p>- Administrazioari proposamenak helaraztea, eskubideak eta betebeharrak baliatzeko bermearekin lotutako prozedurak behar bezala kudeatzen laguntzeko, jarraibideak eta/edo araudia sortzen lagunduz, edo jarduera zehatzen kudeaketan eta ebaluazioan parte hartuz. (1.c)</p>





Hiru urteko 2. helburua:

2.- EAEko ikuskaritzak ikastetxeetan duen **esku-hartze ereduaren** efikazia eta efizientzia hobetzen aurrera egitea, bereziki honako hauek azpimarratuz:

2a- **Ikastetxeen hobekuntzan** eragin handiena duten alderdiak, batez ere emaitzen memorien ondorioetatik eratorritakoak, Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoetatik datozenak eta testuinguruaren egoerara egokitu beharra eskatzen duten beste batzuetatik jasotakoak.

2b- Ikastetxeak ikuskatzearen inguruan egiten diren ekintzen koherentzia, **eragina eta eraginkortasuna** ziurtatzea, pertsonen ebaluazioa azpimarratuz.

*...Ikastetxeen funtzionamendua hobetzen laguntzeko*

**2021-2022ko helburuak**

-Ikastetxearen IKUSKATZE jardueraren garapenean aurrera egitea, ikastetxean egiten diren esku-hartze guztien koherentzia bildu eta erraztuko duen jarduera gisa, eta etengabeko gainbegiratze-prozesu bat sortzea, ikastetxearen antolamendua eta bertan garatzen diren prozesuak hobetzea bultzatuko duena. (2.a.b)

- Erreferentziako ikuskari-aldaketak gertatzen direnean, ikastetxeari buruz dagoen informazioaren transferentzia ziurtatzeko prozedurak ezartzea. (2.a.b)

- Ikastetxeak hobetzen lagunduko duten jardunbide egokien eta ikuskaritza-estrategien zerrenda izatea, eta horiek erakundearen ohiko funtzionamenduan sartzea. (2.a.b)

- Ikastetxeetako **ikasleen ebaluazio-prozesuen egoera ezagutzea** ahalbidetuko duen jarduera izatea. Ikastetxeen lagin batean aplikatu ondoren, hobetzen laguntzea, **proposamenak** eginez eta horiei **jarraipena** eginez. (2.a)

- **Kalifikazioak berrikusteko** prozesu estandarizatu bat izatea, kalifikazio horiek % 90eko arrakastarekin ebatzi ahal izateko. (2.a)

- **Zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko** prozesua eguneratzea: diseinu berria. (2.a)

-Ikuskaritzak irakaskuntza-funtzioaren inguruan egiten dituen jardueretarako erreferentzia-esparru kontrastatu bat izatea, bai eta hura hobetzen lagunduko duen prestakuntza-ebaluazioko eredu bat ere. (2.b)

- Ikuskaritza-jardueren memorien emaitzak aztertzea, **egungo jarduerak (AZ) berrikustea**, zentroak **hobetzean** sortzen den **inpaktuaren** ikuspegitik, eta **jarduera-eremu berriak** identifikatzea. (2.b)

Hiru urteko 3. helburua:

3.- Hezkuntza-administrazioarekin eta, oro har, gizartearekin **harremana eta lankidetzak hobetzen aurrera egitea:**

3.a- **informazioa biltzeko prozedurak egokitzuz** eta herritarren eskaeren kudeaketa bizkortuko duten beste batzuk ezarriz.

3.b- hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko **txostenak** eginez, jasotako informaziotik eratorritako proposamenekin, erabakiak hartzea errazten laguntzeko.

3.c- **sistemaren ebaluazioarekin**, sailaren programa eta ildo estrategikoen jarraipenarekin edo beste batzuekin zerikusia duten ekintzetan parte hartuz, hezkuntza-sistemaren gardentasunaren, arauarekiko doikuntzaren eta ezagutzaren bermea emanez.

3.d- hezkuntza-komunitateak eta, oro har, herritarrek Hezkuntza Ikuskaritzak egiten duen jarduerari buruz duten **ezagutza hobetzen**.

... Hezkuntza-sistema hobetzen laguntzeko

2021-2022ko helburuak

-Hezkuntza-sistemaren baliabideei, prozesuei eta emaitzei buruzko **informazio garrantzitsua lortzeko** tresnak eta prozedurak hobetzea, Hezkuntza Administrazioak eta zerbitzuak berak erabakiak hartzea errazteko (3.c)

- Administrazioak eta herritarrek (Zuzenean, erregistro elektronikoa, Tramitagune, eta abar) egiten dituzten **eskaerak** biltzeko eta kudeatzeko egungo prozedurak aztertzea eta ebaluatzea, eraginkorragoak izan daitezten. (3.a)

- **Kanpoko eskariak kudeatzeko** tresnaren ezarpena amaitzea eta haren erabileraren emaitzak ebaluatzea. (3.b)

- Ikuskaritzako **txostenen kalitatea** hobetzen lagunduko duten prozedurak diseinatzea. (3.b)

- **Hezkuntza-administrazioak** bere **ildo estrategikoak** bultzatzeko abian jartzen dituen programei buruzko **ebaluazio-txostenak** egitea eta helaraztea. (3.b)

- Hezkuntza-administrazioari ikastetxeetako **bizikidetzaren** egoeraren berri ematea, erabakiak hartuz, hezkuntzarako oinarritzko eskubidea bermatze aldera. (3.b)

- Hezkuntza-administrazioako arduradunekin **elkarlanean** aritzea erabakiak hartzeko orduan, informazioa eta ondorioak eta proposamenak helaraziz, egindako **ikuskatzearen ondoriozko** txostenen bidez. (3.b)

- Sailak sustatutako **ebaluazio-jardueren** antolaketan, garapenean eta jarraipenean parte hartzea. (3.b)

- **Langileak kudeatzeko prozedurekin lankidetzan** aritzea, araudia sortzen eta doitzen aholkatzea eta laguntzea, informazioa biltzea, behar duten egoeretan orientazioa eta bitartekotza ematea, etab. (3.b)

- **Ikuskaritzako web orria** eguneratuta edukitzeko prozedurak ezartzea, ikastetxeentzat eta, oro har, herritarrentzat interesgarria den informazioarekin. (3.d)

- Ikuskaritza-zerbitzuen **katalogoa** hezkuntza-komunitatearen artean argitaratzea eta zabaltzea. (3.d)



Hiru urteko 4. helburua:

4.- **Zerbitzuaren antolaketa eta kudeaketa** hobetzen aurrera egitea:

4.a- **Arriskuen analisisan** sakonduz, horiei erantzun eraginkor eta bizkorra emanez eta horiek doitzeko hartutako neurrien ebaluazio sistematikoa eginez.

4.b.- **Jardunen efizientzia** eta emaitzen hobekuntza bermatzen eta areagotzen duten prozedurak ezarriz.

4.c- **Digitalizazioa bultzatuz**, prozesuen eta haien emaitzen plangintza, jarraipena eta kontrola optimizatzeko.

4.d- **Prozesuetan oinarritutako kudeaketaren** ikuspegian eta kudeaketa aurreratua eredurantz aurrera eginez.

... gure jardueraren eraginkortasuna handitzeko

2021-2022ko helburuak

-**Arriskuen analisi sistematikoa** errazteko prozedurak eta tresnak izatea. **Ebaluatu.** Arriskuak eta prozedurak zehaztea aurrea hartzeko eta aurre egiteko. (4.a)

- **Ikuskaritza-jardueren inpaktuaren ebaluazio** prozesuak hobetzea, proposatutako helburuak emaitzei dagokienez ebaluatzea erraztuko duten adierazleak ezarriz (AZen % 50ean), alderdi interesdunen informazioa biltzeko prozedurak ezarriz (gure zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonak eta erakundeak), bereziki orain arte jaso ez direnena (familiak, ikasleak, irakasleak, administrazio langileak) eta hauengandik ikasiz. (4.b)

- Ikuskaritzak gaur egun egiten dituen lanak aurreko ikasturtean landutako eraginkortasun- eta inpaktuari irizpideetara zenbateraino **egokitzen diren** jakiteko informazioa izatea, eta zeregin horiek hobetzeko neurriak ezartzea. (4.b)

- Orain arte sistematikoki jaso ez diren interes-taldeek Ikuskaritza-jarduerari buruzko beharrei, itxaropenei eta gogobetetze-mailari buruzko informazioa izatea. (4.b)

- Kudeaketa aurreratua ereduaren aurrera egitea, bigarren kontraste bat eskatuz. **Pertsonak** elementua garatzen jarraitzea eta **Berrikuntza** elementua bultzatzea. (4.b)

- **Baliabide telematikoa eta teknologikoa** ezagutzan eta erabileran aurrera egitea, jardueren eraginkortasuna errazten duten tresna gisa, langileei V92 aplikazioan prestakuntza emanez, Office 365en aukerak, excela, bideo-konferentziarako app-ak... (4.c)

- EJI Erekin dugun aliantzan sakontzea, V92 aplikazioak eskaintzen dizkigun **prestazioen** kopurua eta kalitatea handitzeko. (4.c)

- Kanpo-eskariak kudeatzeko tresna orokorrean ezartzea. (4.a)



Hiru urteko 5. helburua:

5.- Ikuskaritza-zerbitzuaren gaitasun profesionalaren hobekuntza globalean aurrera egitea, honako hauen bidez:

5a- Ikuskariek dituen gaitasun profesionalen eta zerbitzuak eskatzen dituen espezializazio-eremuen deskribapena izatea, erreferentzia gisa balio dezaten ebaluazio-prozesuetan (LEP, Zerbitzu Eginkizunetan hautaketa) eta autoebaluazioan (prestakuntzari buruzko erabakiak).

5b- Informazioa komunikatzeko eta zabaltzeko prozeduretan sakontzea, bai eta parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko prozeduretan ere.

5c- Pertsonen inplikazioa, kide izatearen sentimendua eta erakundearen helburuekin bat etortzea sustatzea.

5d- Prestakuntzaren eragina hobetuz eta ezagutzaren transferentzia bermatuko duten bideak ezarriz, erakundearen sartzeko diren pertsonen gaitasunen garapenari arreta berezia jarritz

*... gure jardueraren eraginkortasuna handitzeko*

**2021-2022ko helburuak**

-Ikuskaritza-funtzioaren eskumen-matrize bat izatea, Ikuskaritza-plantillako kide guztiekin kontrastatuta. (5.a.1)

- Lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuak garatzea, Ikuskaritza-funtzioaren gaitasunak deskribatzen dituen tresna erabiliz. (5.a.2)

- Prozeduren katalogo bat izatea, pertsonen inplikazioa, kidetasun-sentimendua eta erakundearen helburuekin bat etortzea sustatzeko. (5.b.1.)

- 2020-2021 ikasturtean landutako tresnaren eraginkortasuna eguneratzea eta hobetzea, interesei, trebetasunei eta abarri buruzko informazioa biltzeko, plantillako kideentzat motibagarria eta egokia izango den zereginen banaketa egiteko. Inplementatu eta ebaluatu. (5.b.2.)

- Erretiroen ondorioz ezagutzaren galera murrizteko prozedurak sistematizatzea eta ebaluatzea, eta sisteman sartzeko diren pertsonen gaitasunen garapena arintzea. (5.c)

- Tresnak eta prozedurak izatea Ikuskaritza-eginkizunak behar bezala betetzea erraztuko duten lanbide-gaitasunak garatzeko beharrezkoak diren prestakuntza-ekintzak identifikatu eta hautatzeko. Tresna horiek ezartzen eta ebaluatzen hastea. (5.d)



## Hiru urteko 6. helburua:

**6.- Beste erakunde batzuekiko lankidetzaren aurrera egitea, aliantzak ezartzea eta berrikuntza-prozesuak bultzatzea, hobekuntzarako eta egokitzapen eraikitzailea etengabeko aurrerapena errazteko (ikaskuntza eta etorkizuneko ikuspegiarekin aurrera egitea ekarriko duena), langile guztiak inplikatu.**

**2021-2022ko helburuak**

- Ingurune hurbileko, Estatuko eta Europako ikuskaritzekin lankidetzan aritzea, bai eta hezkuntza-inguruneke beste erakunde batzuekin ere, berrikuntza sustatzen duten jardunbide egokiak trukatzeko. (6.1)
- **Berrikuntza-taldearen** jarduera bultzatzea, funtzioak, zereginak, bileren maiztasuna, lan-dinamika eta abar eguneratuz edo zehaztuz, Zerbitzua hobetzen lagunduko duten proposamen berritzaileak izateko. (6.2)
- Jardunbide egokiak, hobetzeko iradokizunak, praktika berritzaileak eta abar jasotzeko prozedurak ezartzea, horien bideragarritasuna aztertzea eta ezartzeko eta ebaluatzeko balizko estrategiak zehaztea. (6.3)
- Ikuskaritzako langileek ideia berritzaileak proposatzea bultzatuko duten prozedurak aktibatzea (6.4)
- Gure kudeaketa-sistemaren kalitatean aurrera egitea etengabeko hobekuntzarako bidean, Euskalitekin bigarren kanpo-kontraste bat eginez eta aurreko ikasturtean jasotako proposamenak ezarriz. (6.5)

Dokumentu honen III. eranskinean jasotzen dira 2021-2022 urteko helburuak, dagozkien lorpen-adierazleak eta helburu horiek lortzea erraztuko duten jarduerak.

#### 4.- 2021-2022 IKASTURTEKO JARDUERAK: HEZKUNTZAKO IKUSKARITZA KUDEATZEKO SISTEMA. OINARRIZKO ESKU-HARTZE ILDOAK ETA JARDUERA ESANGURATSUENAK.

##### 4.1.-HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN MAKROPROZESUAK ETA PROZESUAK.

Urteko plan honen helburuak lortzeko jarduera-ildoak eta martxan jarri beharko diren jarduerak deskribatu aurretik, jarduera horiek kudeatzen diren markoaren azalpen labur bat egin behar da.

Hirurteko Plan Orokorrean -misioan, ikuspegiari eta balioen markoan adierazitako helburuak lortze aldera orientatzen ditu bere helburuak plan horrek- erabilitako ikuspegiatik abiatuta, EAEko Hezkuntza Ikuskaritza, kalitatea kudeatzeko ISO 9001-2015 sistemaren arabera, ondorengo makroprozesuetan antolatzen da:

- MP 01.- Estrategia, Planifikazioa eta antolaketa.
- MP 02.- Zerbitzuak identifikatu eta ematea.
- MP 03.- Giza baliabideen kudeaketa.
- MP 04.- Dokumentuen kudeaketa.
- MP 05.- Baliabide materialen kudeaketa.
- MP 06.- Neurketa, analisia eta hobekuntza.

Makroprozesu hauek guztiak ematen diote Ikuskaritzaren jarduerari laguntza eta jarduera hori, gehienbat, MP 02 ZERBITZUAK IDENTIFIKATU ETA EMATEA makroprozesuan jasota geratzen da.

Halaber, **ZERBITZUAK IDENTIFIKATU ETA EMATEA MPO2** lau prozesutan antolatzen da, eta lau prozesu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren egitekoan definitutako alderdiei ematen diete erantzuna.

- **PR Ikastetxeek eman beharreko hezkuntza-erantzuna hobetzen laguntzea.**

Ikastetxeen hezkuntza-ikuskaritzarekin, batez ere, lotuta dauden azpi-prozesuak sartzen ditu eta ikastetxeen funtzionamendua eta ikasleei ematen dieten hezkuntza-erantzuna, irakaskuntza-funtzioari aritzeko era eta zuzendaritza-funtzioa dira ardatzak. Jarduera horiek eremu horietan dauden premiak eta hobetzeko aukerak identifikatzera, hausnarketa egiteko prestakuntza-prozesuak sortzera eta, ondorioz, balorea emango duten eta irakaskuntzan hobeto aritzeko eta emaitzak hobekitzeko lagungarri izango diren proposamenak egitera bideratuta daude.

- **PR Arau-kontrola/Eskubide eta eginbeharrak bermatzea.**

Hezkuntza-erkidegoko kide guztien eskubide eta eginbeharrak betetzeko bermeari lotutako azpi-prozesuak. Funtsezko erreferentzia indarreko legeria izango da. Jarduera horietan, gardentasuna, aukera-berdintasuna eta legeriaren izpirituaren arabekoak izango direla segurtatzea izango du Ikuskaritzaren jarduerak helburu.

- **PR Gatazkak konpontzea. Elkarbizitza.**

Ikastetxeetan elkarbizitza positiborako lagungarri izango diren balio, jarrera eta jarduerak sustatzeari eta hezkuntza-eremua guztiei errespetatuko zaien eta guztiak parte sentituko diren toki seguru baten gisa, fisikoki eta emozionalki, bizitzeko eskubidea bermatzeari lotutako azpi-prozesuak dira. Elkarbizitzaren kudeaketari, eta eskola-jazarpenari, lotutako esku-hartzeak, portaerak zuzentzeko prozedurak, bitartekaritza-prozesuak, ikastetxe publikoetako pertsonalaren kontrako erasoak, funtzionario publikoen diziplina-erregimenaren garapena, berdintasuna eta hezkidetzaren sustatzeko prozesua, babesgabeziaren kontrako protokoloak gauzatzea, ... sartzen ditu. Ikuskaritzaren esku-hartzeak gardentasuna, laguntza eta arau-aholkularitza ematen ditu eta, batez ere, gatazkak behar bezala kudeatuko direla bermatzen du, esku-hartze horien emaitza zuzena izan dadin, guztien eskubideak bermatzen eta elkarrekin bizitzeko gaitasuna garatu eta hobetzeko prozesua susta dezan.

- **PR Programen jarraipena. Sistemaren helburuak.**

Programa espezifikoaren jarraipenari lotutako azpiprozesuak dira; izan ere, Lanbide Heziketako Sailburuordetzatik eta Hezkuntza Sailburuordetzatik jartzen dira programa horiek martxan, hezkuntza sistemaren helburuak lortzeko eta horretarako une bakoitzean sustatzen diren ildo estrategikoak aurrera eramateko laguntza eraginkorragoa eman dezaten ikastetxeek. Ikuskaritzaren esku-hartzea programa horien garapena erraztera eta sustatu dituzten helburuak bete diren edo ez baloratzera bideratuta egongo da.

4 prozesu hauetako bakoitzean dauden jardueren (edo azpiprozesuen) zerrenda agiri honen II. eranskinean kontsulta daiteke.

Gainera, **MP 01, MP 06 eta MP 03 makroprozesuen markoan ondorengo jarduerak egiten dira:**

**MP 01.-** ESTRATEGIA, PLANIFIKAZIOA ETA ANTOLAKETA eta **MP 06.-** NEURKETA, ANALISIA ETA HOBEKUNTZA:

Ikuskaritza-zerbitzuak estrategia hobea izateko, egitura eta antolaketari begira, eraginkorragoa izan dadin egin beharrekoak, jardueraren emaitzak hobekuntza izatea sustatze aldera.

Egungo azpiprozesuen (edo prozedurazko jardueren) helburuak berrikusi eta egokitzea, 2020-2023ko hirurteko planaren eta 2021-2022ko urteko plan honen helburuetara egokitzen diren edo ez segurtatzeko; arriskuen analisia, emaitzen analisia, puntu indartsuetan sakontzeko, aukerak aprobetxatzeko eta hurrengo ikasturtean inplementatu daitezkeen hobekuntzak planifikatzeko.

**MP 03.-** GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA:

Pertsonen gaitasun profesionalak hobetzeko jarduerak eta ezagutza ez galtzeko eta inplikazioa, partehartzea eta kide sentitzearen sentimendua areagotzeko estrategiak.

Era berean, Ikuskaritzako kide berriei tutoretza emateko ereduak sustatzen duen taldearen lana ere jasotzen da, bai zerbitzu eginkizunetan, bai praktika-fasean daudenak; ikuskaritza eskumen-profilaren berrikuspena; ebaluazio-prozesuak; eta Ikuskaritzaren prestakuntza-plana.

Prozesu eta makroprozesu horietan jasotako jardueraz gain, Ikuskaritzak hezkuntza-administrazioarekiko lankidetzaz jarduerak askotan parte hartzen du. Lankidetzaz puntual edo sistematikoko eskaerei erantzuten dieten jarduerak dira. Aurreikusi gabeko edo hainbat arrazoiengatik garrantzi berezia hartu duten egoerei lotutako premiazko edo oso garrantzizko gaien buruzko txostenak egitea barne hartzen dute. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Atxikipenak kudeatzea eta egitea.
- Hautaketa-prozesuetan parte hartzea.
- USErako gaien koordinazioa.
- Beste zerbitzu batzuek sustatutako prestakuntza-jardunaldietan laguntzea.
- Herritarrek Hezkuntza Sailari egiten dizkieten kontsultei erantzunak prestatzea.
- Sailak planteatutako gaien buruzko txostenak.
- Sailaren programak diseinatzen eta sustatzen parte hartzea.
- Sailaren ordezkariak zenbait forotan.
- Hizkuntza-laguntzaileen prestakuntzan laguntzea.
- Probak antolatzea (Epalzaren alargun-bekak; Batxilergoko aparteko sariak; USE)

#### 4.2.- AZPIPROZESUAK ETA JARDUERA GILTZARRIAK 2021-2022 IKASTURTEAN

MP2ak aurretik adierazitako 4 prozesuak biltzen ditu.

Horietako bakoitzak hainbat jarduera edo azpiprozesu ditu (AZ), eta horien helburuak Misioan eta Ikuspegiari jasotako elementuetara bideratzen dira.

Urtero, ikasturte bakoitzeko behar eta itxaropen bereizgarriari erantzunez, azpiprozesu esanguratsuenak edo funtsezko azpiprozesuak identifikatzen dira, eta ekintza espezifikoak garatzeko lan-taldeak aktibatzen dira; horiek sistematizatu egiten dira maiz, azpiprozesuak sortuz.

2020-2021 ikasturtean, funtsezko azpiprozesuak hautatzeko kontuan hartu beharreko irizpide hauek ezarri ziren:

- Testuinguru alderdi esanguratsuenak.
- Urteko planaren helburuekin lotura.
- Inpaktua: jarduera-eremua (eragindako ikastetxeen kopurua, unitateak zentroetan, tipologia, etab.).
- Gizartearen eskaerak eta eragina.
- Sailaren helburuak eta eskaerak.

2021-2022 ikasturtean, hauek izango dira funtsezko azpiprozesuak eta jarduerak:

- **Ikastetxea hobetzen laguntzen duten ekintzak (ikastetxeen ikuskatzea).**
  - Ikastetxearen urteko planaren helburuen jarraipena.
  - Programazioak aztertzea, eta arreta berezia eskaintzea irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren plangintzari eta ikasleen ebaluazio-prozesuari. Eskola-eremuei buruzko hausnarketa eta analisisa bultzatzea
  - Zuzendaritza-funtzioa ebaluatzea.
  - Irakaskuntza-funtzioaren ebaluaziora hurbiltzea.
  - Aniztasunarekiko eta inklusioarekiko arreta bermatzeko programen jarraipena
    - Eraldatzen.
    - Eusle.
    - Hauspoa.
  - Zentroko urteko ikuskatzearen laburpen-jarduera.
- **Eskubideen bermea:**
  - Absentismoa eta aurrez aurrekoa ez den arretaren jarraipena.
  - Bizikidetzaren ikastetxeetan: eskola-jazarpena, bizikidetzaren planak, jokabidea zuzentzeko prozedurak...
  - Ikasleen ebaluazioa. Erreklamazioak egiteko prozedura
  - Irakasleen titulazioak. Arauarekin bat datozela jarraipena egin.
- **Administrazioarekin lankidetzan aritzeko jarduerak, hezkuntza-sistemaren egoeraren berri emateko.**
  - COVID-19ak ikastetxeen funtzionamenduan duen eraginari buruzko informazioa ematea.
  - Aniztasunaren arretarako eta hezkuntza-inklusiorako Sailak sustatutako programen jarraipenari buruzko txostenak egitea.
  - Ebaluazioari buruzko jarraibideak prestatzen laguntzea





### 4.3.- ESKU HARTZEKO ILDO ESTRATEGIKOAK

Ikuskatze-jarduerak, goian adierazitako prozesu-maparen arabera antolatutakoak, ildo estrategiko jakin batzuen bidez garatzen dira. Ildo horiek helburuak lortzeko bidea markatuko dute, eta Ikuskaritza-jarduerari koherentzia emango diote ikuspegi orokor batetik.

Urteko Plan honen helburuen garapena erraztuko duten esku-hartze ildoak eta jardueren garapenean erreferentzia izango diren jarduketa-printzipioak 2020-2023 hiru urteko planean jasotzen dira.

2021-2022 URTEKO PLANAREN HELBURUAK izeneko atalean adierazitako urteko helburuak lortzen laguntzeko, garatu beharreko jarduerak hiru LERRO ESTRATEGIKO handitan biltzen dira:

- Ikastetxeetan esku hartzea, euren hobekuntzan laguntze aldera.
- Hezkuntza Saileko beste zerbitzu eta unitate batzuekin eta beste sail eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzea.
- Ikuskatzea hobetzea.

Hala ere, adierazi behar da garatu beharreko jarduera gehienek hirurei dagozkien esparruetan eragiten dutela, erkidego honetako Hezkuntza Ikuskaritzak hartu duen izaera sistemikoa eta holistikoa zentroen ikuskatze-ereduaren arabera diseinatu eta garatzen baitira.

### 4.4. 2021-2022 IKASTURTEKO JARDUERAK:

Lehen adierazi den moduan, ikasturte honetan garatu beharreko funtsezko ekintzak honako hauek dira:

- a.- ikastetxeak ikuskatzea, hau da, ikastetxea hobetzen laguntzen duten ekintzen multzoa;
- b- eskubideen bermea;
- c- hezkuntza-sistemari buruzko informazioa biltzea lankidetzajardueretan, hezkuntza-administrazioko arduradunei hobekuntza-proposamenak egiteko.

Gainera, aurrekoari laguntzeko, Ikuskaritza-plantillaren garapen profesionalarekin lotutako ekintzak aktibatuko dira, eta planifikatutako ekintzak eraginkortasunez gauzatea errazteko beharrezkoak diren orientabideak, tresnak eta prozedura teknikoak prestatzea eta abiaraztea bultzatuko da.

Era berean, joan den ikasturtean kalitate-batzordeak prestatutako tresnetatik abiatuta, Ikuskaritzak egin ohi dituen atazak edo azpiprozesuak berrikusten jarraituko da, haien eraginkortasuna hobetzeko. Proposatutako helburuak lortzeko edo egoerak eskatzen dituen eskaera berriei erantzuteko behar diren beste batzuk ere planifikatuko dira.

Halaber, funtsezko ekintzak eta urteko helburuak lortzen laguntzen duten beste erakunde eta zerbitzu batzuekiko lankidetzajarduerak eta koordinazio-ekintzetan parte hartuko da.

Esparru horretan guztian, plantillaren barruko koordinazio-ekintzak indartu egin behar dira, bai zonetan, bai lurralde artean, haien maiztasuna eta eraginkortasuna handituz. Aldaketa etengabeak eta azkarrak gertatzen direnean, informazio garrantzitsuak jakinarazteko arintasuna bermatu behar da, sortzen diren gaiei erantzun arina eman behar zaie, eta kasu bakoitzean erantzun egokiena emateko malgutasunarekin bateragarria den irizpide-batasuna erraztuko duten orientabideak eman behar dira.



Egiten diren ekintzen etengabeko jarraipena eta ebaluazioa beharrezkoak izango dira ekintzen eraginkortasuna ziurtatzeko eta, hala behar izanez gero, aldaketei buruzko erabakiak hartzeko. Zerbitzuaren koordinazio-egiturek –bereziki, Ikuskatze Batzordeak–, sistemaren kontrol eta jarraipen-tresnek, erabiltzaileen gogobetetze-maila biltzeko prozesuek... elementu aktiboak izan behar dute, eta modu eraginkorrean bideratu behar dira helburu horretara.

Jarraian, 2021-2022 ikasturtean funtsezkoak izango diren 6 jarduerak deskribatzen dira.

Horietako bakoitzean, urteko helburuak eta inplikaturako prozesuak edo azpiprozesuak adierazten dira. Gainera, horietako bakoitzaren deskribapen laburra egiten da.

**1. JARDUERA:**

IKASTETXEAK IKUSKATZEA.

**2. JARDUERA:**

IKASLEEN ABSENTISMOA. INTZIDENTZIA COVID-19AREKIN LOTUTAKO KASUETAN.

**3. JARDUERA:**

IKASTETXEETAKO BIZIKIDETZAREN JARRAIPENA.

**4. JARDUERA:**

SAILAREN ILDO ESTRATEGIKOAK BULTZATZEN LAGUNTZEA.

HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOARI INFORMAZIOA ETA PROPOSAMENAK HELARAZTEA BERE PROZESUAK KUDEATZEN LAGUNTZEA.

**5. JARDUERA:**

JARDUERAREN ESTRATEGIA ETA ERAGINKORTASUNA HOBETZEA. EZARPENA SUSTATZEA. BERRIKUNTZA.



LERRO ESTARTEGIKOA 4.1.1

IKASTETXEETAN ESKU HARTZEA

### 1. JARDUERA : AZ 022004 IKASTETXEEN IKUSKATZEA

#### INPLIKATUTAKO URTEKO HELBURUAK:

-Ikastetxeetan COVID-19 neurrien betetze-mailari buruzko informazioa izatea, sars-cov-2aren aurrean **osasunerako eskubidea** bermatzeko, eta hezkuntza-administrazioko erabaki-organoei informazioa ematea.

(1.a)

-Ikastetxearen IKUSKATZE jardueraren garapenean aurrera egitea, ikastetxean egiten diren esku-hartze guztien koherentzia bildu eta erraztuko duen jarduera gisa, eta etengabeko ikuskatze-prozesu bat sortzea, ikastetxearen antolamendua eta bertan garatzen diren prozesuak hobetzea bultzatuko duena. (2.a.b)

-Erreferentziako **ikuskari-aldaketak** gertatzen direnean, ikastetxeari buruz dagoen informazioaren transferentzia ziurtatzeko prozedurak ezartzea. (2.a.b)

-Ikastetxeetako **ikasleen ebaluazio-prozesuen egoera ezagutzea** ahalbidetuko duen jarduera izatea. Ikastetxeen lagin batean aplikatu ondoren, hobetzen laguntzea, **proposamenak** eginez eta horiei **jarraipena** eginez. (2.a)

-**Kalifikazioak berrikusteko** prozesu estandarizatu bat izatea, balizko erreklamazioak % 90eko arrakastarekin ebatzi ahal izateko. (1 eta 2.a)

-Hezkuntza Administrazioiko arduradunekin **elkarlanean** aritzea erabakiak hartzeko orduan, informazioa eta ondorioak eta proposamenak helaraziz, egindako **ikuskatzearen ondoriozko** txostenen bidez. (3.b)

**Prozesua:** ikastetxeen hezkuntza-erantzuna hobetzen laguntzea.

INPLIKATUTAKO AZPIPROZESUAK: AZ 022004 Ikastetxeak ikuskatzea: ikastetxeen funtzionamenduaren jarraipena egitea eta hobetzeko proposamenak egitea. AZ021305 ikastetxeko plangintza-dokumentuen azterketa, batez ere PAC-MEM. AZ021396\_ikasleen ebaluazioa. AZ021320 Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa. AZ023387 eskola-jazarpeneko kasuen jarraipena eta AZ023394 bizikidetzaren kudeaketa. AZ023386 ikasleen absentismoaren kontrola. AZ022373 curriculum-egokitzapen indibidualizatuen kontrola, AZ022350 DAE. AZ022353 Irakasleen absentismoa. AZ021393 dokumentazio akademikoa behar bezala betetzea. AZ024365 Hauspoa. ERALDATZEN. EUSLE...

#### Jardueraren deskribapena:

##### Ikuskaritzak ikastetxean esku hartzeko eredia

Hezkuntza Ikuskaritzak jarduera ugari egiten ditu ikastetxeetan, eta horien helburu nagusia hura hobetzen laguntzea da. Jarduera horiek elkarren osagarri izan behar dute, eta argi eta esplizituki xede horretara bideratuta egon behar dute.

Hala ere, historikoki erabili den jarduera antolatzeke ereduaren ondorioz, Ikuskaritzaren esku-hartzeak modu independentean eta loturarik gabe planteatu eta egituratu dira maiz. Planteamendu horrek ez du errazten ikuskaritza-jarduerari ikastetxe bakoitzean ikuspegi globalizatuarekin ekitea, jarduera guztiek jarraipena eta eragin osagarria izan dezaten, jarduera bakoitzean egindakoak eragina izan dezan, aberastu dadin eta ondorengo jardueren kalitatean eragin dezan.

Arestikoaz gain, Ikuskaritzak ikastetxean egiten dituen esku-hartze guztiek honetara bideratuak egon behar dute, kasuaren arabera:

- Administrazioaren eskaera zehatzak erantzutea.
- Ikastetxearen hobekuntza bultzatzen duen eta bertan etengabe gertatzen diren aldaketetara egokitzen den ikuskatze formatiboa, etengabea eta progresiboa. Planteamendu hau une puntualetan eman daitekeen ebaluazio sumatibotik harago doa.



### **Ikastetxeetan esku hartzeko eta ikuskatzeko ereduaren ezaugarriak**

Ikastetxeetan esku hartzeko eta ikuskatzeko eredu honen helburua da Ikuskaritzaren esku-hartzeek balio erantsia ematea ikastetxeei. Hezkuntzako ikuskaritzak balio erantsia ematen du honako kasu hauetan:

- Ikastetxeei informazioa, orientazioa eta laguntza ematen dienean, ikastetxeek hezkuntza-helburuen berri izan dezaten eta horien arabera jardun dezaten, bai arauan jasotakoak, bai Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoetatik eratorritako plan eta programetan jasotakoak.
- Ikastetxeak zentzu estrategikoarekin pentsatzera, helburuak betetzera eta hobekuntzarako bidean aurrera egitera bideratzen dituzten.
- Ikastetxean ikuspegi partekatua garatzen dela (ikastetxearen helburuak) eta konpetentzia kolektiboa sustatzen dela zaintzeko esku hartzen duenean. Honek esan nahi du ez dela bakarrik banakako gaitasuna landuko, baita pertsonen arteko elkarrekintza eraginkorra ere.
- Berrikuntza bultzatu eta babesten duenean, bereziki, ikastetxeko kulturaren eta balio kolektiboetan aldaketak eragingo dituzten ekintzetan, curriculumean, metodologietan, ebaluazio-prozesuetan, digitalizazio-prozesuetan eta abarretan berrikuntzak ezarriz.
- Ikastetxeek ikasle guztien eskubideak bermatzeko baliabideak jartzen dituztela ziurtatzeko esku hartzen duenean.
- Ikastetxeetan hezkuntza-jarduerak guztiontzako bizikidetzak- eta ongizate-giro positiboan garatzen dela zaintzeko esku hartzen duenean.
- Zuzendaritza-lana hobetzen laguntzen duenean, zuzendaritza-taldeek hezkuntza-komunitatean duten eraginak hezkuntza-eremuetan hobetzea bultzatzen eta eskubideak bermatzeko dituen eta ikaskuntza hobetuko duen bizikidetzak-giroa bultzatzen.
- Zuzendaritzari laguntzen dienean irakaskuntza-funtzioa hobetzen, irakasle guztien motibazioa pizten, talde-lana bultzatzen eta lan-gaitasuna garatzen.
- Kalitatezko hezkuntza ekitatiboa eta ikasle bakoitzaren beharretara egokitua jasotzeko eskubidea bermatzen duten jarduerak garatzen dituzten.
- Ikastetxeak bere jardunari buruzko gogoeta egitea bultzatzen duenean, emaitzen ebaluazioa, autoebaluazioa eta koevaluazioa oinarri hartuta.
- Zailtasunak konpontzen laguntzen duenean eta ikastetxeek planteatutako erronkak lortzen laguntzen duenean.
- Ikastetxearen eta administrazioaren beste kudeaketa- eta erabaki-organo batzuen arteko bitartekaritza egiten duenean arazoak konpontze aldera, edo administrazioari ikastetxeen arazo eta/edo nahien berri ematen dienean.
- Hobekuntza-proposamenak egiten dituzten, ikastetxean gertatzen denaren analisi objektibo eta kualifikatua oinarrituta, ikastetxearen funtzionamendua eraginkorragoa izan dadin eta ikasleentzat hezkuntza-erantzun hobea izan dezan sustatzeko.

**Esku hartzeko estrategiak:**

Hezkuntza Ikuskaritzak ikastetxearen kanpoko ikuspegi objektiboa du, baina, aldi berean, hurbileko kolaboratzailea da, ikastetxeari kalitatezko feed-back ekarpena egiten diona.

Ikuskariak ikastetxea ezagutzen du, eta ezagutza hori handituz doa esku-hartze bakoitzean. Erreferentziako ikuskariak ikastetxea hobeto ezagutzeak hobeto jardutea eta balio erantsi handiagoa ematea dakar.

Bere esku-hartzea, funtsean, honako hauetan oinarritzen da: ikastetxearen jarraipenean eta ebaluazioan; bisitetan jasotako datu objektiboetan oinarritutako ondorioak lortzean; aurrerapenak behatzean; eskola-emaitzen azterketan eta ondorengo ekintza bideratzeko aukera emango dion beharren diagnostiko bat egitean...

Bertan garatzen diren prozesuen eraginkortasunaz jabebarazi behar du ikastetxea. Egiten dituzten jardueren zergatia eta zertarakoa aztertzen laguntzea. Hausnarketa-ekintza prozesuak aktibatzea. Behar aldakorretara egokituta jarduteko gaitasuna indartu behar du, eta ikastetxeei hezkuntza-errealitatea ulertzen lagundu behar die.

Garapen profesionala eta **ezagutzaren transferentzia** bultzatzen lagundu behar du

Hezkuntza-liderren belaunaldi berriei lagundu behar die, komunitate osoan motibatzeke eta eragiteko, berrikuntza bultzatzeko eta lidergo partekatuak eta malguak sustatzeko.

Orobat, ikastetxearen funtzionamendua hobetzean eta ikasle guztien eta bakoitzaren arrakastan eragin handiena duten kausetan edo aldagaietan zentratu behar du bereziki.

Elkarrizketarako, entzuteko eta bere esku-hartzea ikastetxeen aniztasunera egokitzeko jarrera izan behar du, arreta eta laguntza gehiago inbertituz gehien behar den lekuetan.

**Tresnak:**

Bere esku hartzerako ikastetxeko ikuskariak honako hauek izan ditzake oinarri:

- Jarduera hau burutzen laguntzeko diseinatutako orientabideak.
- Ikastetxeko bisitak planifikatzea.
- Ikastetxearen koadernoak: esku-hartzearen plangintza – Helburuak –; jarduera eta gorabehera esanguratsuenen erregistroa; azterketa eta balorazioak; ikastetxeko hobekuntza-proposamenak; jarraipena egiteko proposamenak...

**Ikastetxean jarduteko eremuak:**

Ikuskariak ikastetxea eta haren hezkuntza-komunitatea osatzen duen sistemaren elementu guztietan jarri behar du arreta, bereziki honako hauetan:

- Ikastetxearen kudeaketa planifikatzea. Xede partekatutak. Helburuak (epe labur, ertain eta luzeko dokumentu estrategikoetan jasoak).
- Koordinazio-egiturak.
- Zuzendaritza-taldea.
- Ikastetxearen kudeaketa eta funtzionamendua.
- Baliabideak antolatzea eta kudeatzea.
- Hezkuntza-prozesuaren plangintza.
- Irakaskuntza-estrategiak.
- Aniztasunari arreta emateko estrategiak.
- Curriculum.
- Irakasleak: Garapen profesionala. Prestakuntza. Ebaluazio-estrategiak. Koordinazioa. Hausnartutako praktika, trebetasun teknikoak, ikerketa. Irakaskuntza-estrategiak. Ikasleen arreta eta jarraipena. Ikasgelaren kudeaketa.
- Ikasleak: Hezkuntzarako eskubidea: absentismoaren kontrola. Kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea. Ikaskuntzak. Ongizaterako eskubidea. Ebaluazio objektiboa izateko eskubidea. Errespetatua izateko eta garapen emozionala izateko eskubidea.
- Eskolako giroa. Bizikidetzeta eta hezkidetzeta.
- Familiak.
- Eskola-orientazioa.
- Parte-hartzea
- Ingurunearekiko harremana (erakundeak, enpresak).

Hezkuntza Ikuskaritzak, ikasturte bakoitzean, planifikatzen du elementu horietakoren batean esku hartzea, nahiz eta horietako batzuk hainbat ikasturtetan zehar mantentzen diren. Gainera, ikastetxe bakoitzaren behar espezifikoaren arabera, erreferentziako ikuskari bakoitzak beste batzuetan esku hartzeko plangintza egin ahal izango du.

**2021-22 ikasturterako esku-hartze orokorrak:**

2020-21 ikasturtean ezarri zen egoera epidemiko sanitarioak aldaketa handiak eragin zituen ikastetxeek beren antolaketa eta funtzionamenduari zein irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari heltzeko moduan. 2021-22 ikasturtea pandemiaren eragin txikiagoarekin hasi da eta COVID-19aren eraginak alderdi horietan eragin urriagoa izango duela pentsarazten digu. Hala ere, oraindik erne egon behar dugu, eta, horrenbestez, hezkuntzako ikuskaritzak modu intentsiboan lan egiten jarraitu behar du hezkuntza-eskubideak eta hezkuntza-komunitatearen osasun fisiko eta emozionala bermatzeko.

Era horretan, ikuskatze-jarduerak esku-hartze hauek barne hartuko ditu:

1.- 2021-22 ikasturterako esku hartzeko helburuak planteatzea, honako hauek kontuan hartuta: aurreko ikasturtean egindako balorazioak eta proposamenak, 2021-22 urteko ikuskaritza-planaren esku-hartze ildoak eta ikastetxe bakoitzean arreta handiagoa behar duten beste alderdi batzuk.

2. – Ikasturtean zehar, oro har, honako hauek jorratuko dira:

2.1.-Ikastetxean COVID19 ezohiko neurriak ezartzearen jarraipena. Ikastetxearen urteko planean jasotako kontingentzia-plana.

2.2 Ikastetxeko baliabideen antolaketa eta kudeaketa:

2.2.1 - Helduen Hezkuntzako ikastetxeetan: EED-DAE betetzearen eta ikastetxeak ikasleak programa ez-arautuei esleitzeko erabiltzen dituen irizpideen jarraipena.

2.2.2.- Elkarrizketa Laguntzaileak baliabidea duten zentroak: esku-hartzea - Jarraipena. (Informazioa biltzea. Gainbegiratze galdetegi baten bidez)

2.2.3- Lanbide Heziketa: ordezkapenen kontratazioaren ukoen inguruko egoeraren azterketa (Diagnostikoa: AZn sortutako txostenen analisia. Lanpostuaren profileraren egokitzea). Ikasleen abandonu-egoera aztertzea.

2.3.- Zuzendaritza-eginkizunarekin lotutako jarduerak:

2.3.1.- Zuzendaritza-proiektua duten ikastetxeetan: ebaluazio-urtearen arabera (021320 AZn jaso).

2.3.2. Zuzendaritza-proiekturik gabeko ikastetxeetan. Esku-hartzea planifikatu.

2.3.3- Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioaren planteamendu berrian laguntzea eta diseinu berri bat egitea.

2.3.4. Jarduera-esparru bat ezartzea, ikuskariak zuzendaritzen izendapena proposa dezaten, zuzendaritza-taldearen eskumen-profila erreferentziatzat hartuta.

2.4 Eskola-jazarpeneko kasuen jarraipena (aurrerago beste atal espezifiko bat nabarmenduko da).

2.5 Eskolako absentismoaren jarraipena (aurrerago beste atal espezifiko bat nabarmenduko da).

2.6.- Hezkuntza Sailburuordetzak eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzak sustatutako programen diseinua eta jarraipena:

2.6.1.- Eraldatzen.

2.6.2.- Hauspoa: V92ko jarduketak eguneratzea.

2.6.3.- Eusle

2.6.4.- LH: ikastetxeetan indarrean dauden proiektu guztiak ezagutzea. Proiektuen jarraipen sistematikorako tresnak prestatzea



2.7.- Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua eta ebaluazioa planifikatzea.

2.7.1.- **Ikasleen ebaluazio-prozesuek ikastetxeetan duten egoera ezagutzea** ahalbidetzen duen jarduera. **Ikastetxeen lagin batean aplikatu ondoren, hobetzen laguntzea**, proposamenak eginez eta horiei jarraipena eginez (Ikasleen Ebaluazioa sisteman dagoen jardueraren diseinua berrikustea). Ikastetxeei etengabeko ebaluazioaren zentzua adierazi behar zaie, eta gutxieneko adierazleak eta adierazle argiak definitu behar dira, ebaluazioaren eta kalifikazioaren erreferentzia izan daitezen).

2.7.2.- Kalifikazioak berrikusteko egungo prozesu estandarizatua berrikustea, kalifikazioak % 90eko arrakastaz ebazteko. Inplikaturako beste eragile batzuekin alderatzea (kalifikazioak berrikusteko prozesua berrikustea, egindako ebaluazio-prozesuaren berrikuspena erreferentziatzat hartuta).

2.7.3 Arau- eta curriculum-esparru berriak eragindako metodologia- eta curriculum-aldaketak (ikasleen plangintza, metodologia eta ebaluazioa) bultzatzen laguntzea (LOMLOE, curriculumari buruzko Errege Dekretuak)

3.- Aurreko ikasturtean alderdi horiei eta beste batzuei buruz egindako proposamenak aintzat hartzea.

4.- Ikasturtearen amaieran, egindako ikuskatzearen ondorioz ikastetxeari proposatu zaizkion hobekuntza-proposamenak jasoko dira. Proposamen horiek datorren ikasturtean gainbegiratu dira.

Makrojarduera hau garatzeko, diseinu-prozesuak, orientabideak eta material lagungarriak egingo dira.

Honetaz gain, zenbait taldek garatutako hedapen-, prestakuntza- eta jarraipen-prozesuak ere beharko dira. Lan-talde batek (AZ022004) koordinazio-bideak ezarri beharko ditu makrojarduera honetako jardueren ardura duten taldeekin.

Gainera, jarduera horrek erreferentziako ikuskari bakoitzak zentro bakoitzean jasotako informazioa jakinarazteko prozesuak eta tresnak barne hartuko ditu. Horri esker, ikastetxe bakoitzaren eta, oro har, hezkuntza-sistemaren egoeraren eta beharren berri izango dugu, eta horrek informazioa ematea eta proposamenak egitea erraztuko du, Hezkuntza Saileko edo beste erakunde batzuetako arduradunek erabakiak har ditzaten. Jarduera horien guztien alderdirik esanguratsuenak formulario bakar batean jaso daitezten ahaleginduko gara.

Makrojarduera hori, AZ022004 izenekoa, V92 aplikazioan islatuko da.



AZ022004 jarduera eta ikastetxeko elementu edo eremu bakoitzean duen eragina

Ikastetxearen eremuak	Ikastetxearen kudeaketa planifikatzea	Zuzendaritza Taldeak	Ikastetxearen kudeaketa eta funtzionamendua	Baliabideen antolaketa eta kudeaketa	Hezkuntza-prozesuaren plangintza.	Irakasteko eta ebaluatzeko estrategiak eta aniztasuanri arreta	Hezkuntza-prozesuaren plangintza.	Curriculum	Eskola orientabidea	Irakasleak	Ikasleak	Eskolako giroa. Bizikidetz. Hezikidetz	Familiak	Esku hartzea	Ingurunearekiko harremana (erakundeak, enpresak)	Bestelakoak
Jarduera 21-22																
Ikastetxean ikuskaritza egiteko helburuen plangintza																
Covid ezohiko neurrien jarraipena																
Helduen Hezkuntza																
Elkarriz. laguntzaileak																
LH ukoak																
Zuzend Funtzioa ebal																
Proiekturik gabeko zuzendaritzekin esku hartzea																
Jazarpena																
Absentismoa																
LH programak																
Eraldatzen																
Hauspoa																
Eusle																
Progarmazioak																
Ikasleen ebaluazi																
Aurreko ikasturteko proposamenen jarraipena																
Proposamen berriak																
Besteak																
Jardueraren ERAGIN-MAILA::																
<span style="background-color: #92d050; padding: 2px;">Eragiten du, zuzenean</span> <span style="background-color: #00b0f0; padding: 2px; margin-left: 100px;">zeharka eragiten du</span> <span style="background-color: #ffff00; padding: 2px; margin-left: 100px;">Potentzialki eragiten du</span>																

<p><b>LERRO ESTARTEGIKOA 4.1.1</b></p>	<p><b>IKASTETXEETAN ESKU HARTZEA</b></p>
<p><b>2. JARDUERA: IKASLEEN ABSENTISMOA. COVID-19arekin LOTUTAKO KASUAK</b></p>	
<p><b>INPLIKATUTAKO URTEKO HELBURUAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Hezkuntza Administrazioari COVID-19ak ikastetxeetan duen eraginaren berri ematea, hezkuntzarako <b>oinarrizko eskubidea bermatzeko erabakiak</b> hartzeko (1.a)</li> <li>-Ikuskaritzak egiten dituen eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko bermearekin lotutako zereginen <b>doikuntza-mailari buruzko informazioa izatea</b> (absentismoa kontrolatzea, euskara-salbuespenak kontrolatzea, aniztasunarekiko arreta eta ekitatea sustatzeko programen jarraipena egitea eta ACIak kontrolatzea, eskola-jazarpenerako kasuen jarraipena egitea...) <b>2020-2021 ikasturtean ezarritako eraginkortasun- eta eragin-irizpideetara</b>, eta zeregin horiek hobetzeko neurriak zehaztea. (1.b)</li> <li>- Ikasleen ebaluazio objektiborako eskubidea bermatzeko estrategia eraginkorrek eta baliozkoak izatea, presentzialtasun-egoeran zein ez-presentzialtasun-egoeran. (1.b)</li> <li>-Hezkuntza-sistemaren baliabideei, prozesuei eta emaitzei buruzko <b>informazio garrantzitsua lortzeko</b> tresnak eta prozedurak hobetzea, Hezkuntza Administrazioak eta zerbitzuak berak erabakiak hartzea errazteko (3.c)</li> <li>-Hezkuntza-sistemaren baliabideei, prozesuei eta emaitzei buruzko <b>informazio garrantzitsua lortzeko</b> tresnak eta prozedurak hobetzea, hezkuntza-administrazioak eta zerbitzuak berak erabakiak hartzea errazteko (3.c)</li> </ul>	
<p><b>Prozesua:</b> PR Arau-kontrola/Eskubide eta betebeharren bermea</p> <p><b>Lotutako azpi-prozesuak:</b></p> <p>AZ022386 Ikasleen absentismoa. AZ022308 Etxez etxeko laguntza. Ikasturte honetan, AZ 022308 eta AZ 022386 oso lotuta daude; izan ere, arrazoi medikoengatik eta COVID-19arekin lotutako arrazoiengatik ikasleak eskolara ez joateko arrazoiak agerian utzi dute antzeko parametroekin jokatu behar dela, eta bi AZetan kasuen kudeaketan planteamendu koherente batekin. Etxeko hezkuntza-arreta ezohiko baliabidea da susperraldian eta/edo ospitaleratzean dauden ikasleei arreta emateko, baina egungo pandemia eta alarma sanitarioak gomendatzen du, salbuespen gisa, COVID-19aren ondoriozko egoerei erreferentzia egiten dieten medikuaren preskripziodun eskaerei erantzutea. Horregatik, AZ 022308tik kudeatzen diren kasuak kudeatzeko jarraibide espezifikoko eguneratu dira, AZ 022386an egiten ari den zeregina kontuan hartuta.</p>	
<p><b>JARDUERAREN DESKRIBAPENA:</b></p> <p>Jardueraren helburua da:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1.- Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen dituzten ikastetxeek ikasleen bertaratzea erregistratzeko kontrol-mekanismoak erabiltzen dituztela gainbegiratzea.</li> <li>2.- Ikastetxeek hileko absentismo-erregistroak Ikuskaritzara bidaltzen dituztela kontrolatzea, bai eta jarduera-protokoloan egindako urrats guztiak betetzen direla ere.</li> <li>3.- Eskola-jarduera ez-presentzialaren eskaera guztien jarraipena egitea.</li> <li>4.- Aldian-aldean, hezkuntza-sailburuordeari absentismo-kasuen bilakaeraren berri ematea, presentziala zein ez-presentziala.</li> <li>5.- Hezkuntzako lurralde-ordezkariei beren lurraldeetako eskola-absentismoaren arazoaren dimentsioaren berri ematea, eta Sailburuordetzari dimentsioaren berri ematea EAEn.</li> <li>6.- Jarduera honetako ekintzak etxeko laguntzakoekin koordinatzea.</li> </ol> <p>Aurreko ikasturtean, COVID-19 egoeraren ondorioz, gora egin zuten nabarmen eskola-absentismoko kasuek, aurreko ikasturteetako datuekin alderatuta, bai % 20a baino gehiagoko absentismoa izan zuten ikasleei eta baita % 100eko absentismoa izan zutenei dagokionez.</p> <p>Hori dela eta, absentismoaren jarraipenaren konplexutasuna kontuan hartuta, ikasturte honetan ikasleen hutsegiteekin lotutako egoeren tratamendu berezia egiten jarraituko da:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1.- Ikaslearen gaixotasuna.</li> <li>4.- Ikasleen osasunerako arriskua (gaitzak/aurretiko patologiak).</li> <li>5.- Ikaslearen bizikidearen osasunerako arriskua COVID-19agatik</li> <li>6.- Beldurra edo COVID-19arekin lotutako beste arrazoi batzuk</li> <li>7.- Ohiko absentismoa</li> </ol>	



Horregatik guztiagatik, eta justifikatutako arrazoi batengatik aurrez aurrekoa ez den jardueraren kasuan, eta ikasleek ikaskuntza-prozesuarekin ahalik eta baldintza onenetan jarraituko dutela bermatzeko, beharrezkotzat jotzen da ikastetxeek ikasle horien eskola-jarduera ez-presentzialaren egoera kontrolatzea, eta ikasle baten ikaskuntza-prozesuari eragin diezaiokeen zantzuak dauden kasuen jarraipena egitea.

Horretarako, joan den ikasturtean, *Kalifikazioak eta hutsegiteak* aplikazioan atal bat gaitu zen, ikasle-talde bakoitzeko tutoreak ikasleen ikaskuntza ez-presentzialaren jarraipena egin ahal izan dezan eta ikaskuntzari buruzko datuak astero erregistratu ahal izan ditzan.

Ikasturte honetan, Hezkuntza Ikuskaritzak kasuak gainbegiratzen eta horien jarraipena egiten jarraituko du, eta arreta espezifikoa eskainiko die aurrez aurrekoa ez den eskola-jardueraren eskaerei. AZ020286ak horri buruzko orientabideak emango ditu.

<b>LERRO ESTARTEGIKOA 4.1.1</b>	<b>IKASTETXEETAN ESKU HARTZEA</b>
<b>3. JARDUERA: BIZIKIDETZA IKASTETXEETAN</b>	
<p><b>INPLIKATUTAKO URTEKO HELBURUAK:</b></p> <p>- Ikastetxeak hobetzen lagunduko duten jardunbide egokien eta ikuskaritza-estrategien zerrenda izatea, eta horiek erakundearen ohiko funtzionamenduan sartzea. (2.a.b)</p> <p>-Hezkuntza-sistemaren baliabideei, prozesuei eta emaitzei buruzko <b>informazio garrantzitsua lortzeko</b> tresnak eta prozedurak hobetzea, Hezkuntza Administrazioak eta zerbitzuak berak erabakiak hartzea errazteko (3.c):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskola-jazarpenerako kasuen jarraipena egiteko tresna</li> <li>• Ikastetxeetako bizikidetzaren egoera ebaluatzeko tresna (beste zerbitzu batzuekin lankidetzan)</li> <li>• Ikuskaritza-zerbitzuak duen informazio guztia ikastetxeetako bizikidetzaren eremuari dagokionez taldekatzea ahalbidetuko duen prozedura, aztertu, ondorioak atera eta etorkizunean esku hartzeko erabakiak hartu ahal izateko.</li> </ul> <p>-Hezkuntza Administrazioari ikastetxeetako bizikidetzaren egoerari buruzko informazioa ematea, hezkuntzarako oinarrizko eskubidea bermatzeko erabakiak har ditzan (2.b eta 3.b), honako hauetan eragiten</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskola-jazarpenerako kasuen kontrola eta jarraipena</li> <li>• Aholkularitza eta orientazioa kasuen kudeaketan.</li> </ul>	
<p><b>JARDUERAREN DESKRIKAPENA</b></p> <p>Ikasturte honetan, AZ023387 jarduerarekin jarraituko da, eskola-jazarpenerako kasuen kontrola eta jarraipena eginez.</p> <p>Gainera, beste jarduera bat egingo da, 2020-2021 ikasturtearen amaieran jarraipen-egoeran geratu ziren eskola-jazarpenerako kasuen jarraipena egiteko. AZ023387tik informazio zehatza emango zaie ikuskariei.</p> <p>Jarduera berri hori ebaluatu egingo da, eta hurrengo ikasturtean ezarriko da behin betiko, balorazio positiboa izanez gero.</p> <p>Era berean, lantalde batek prozedura bat egingo du ikastetxeetan bizikidetzarekin lotuta egiten ditugun jarduera guztiak integratu ahal izateko (Ikastetxe publikoetako langileei egindako erasoia, Bizikidetzeta Plana, jokabidea zuzentzeko prozedurak,...).</p> <p>Aurreikusitako ekintza/jarduerak egiteko beharrezkoak diren informatika-tresnak (V92, Irakaslegunea/Hezigunea) garatuko dira, eta, horretarako, EJI Erekin lankidetzan jardungo da.</p>	

<p><b>LERRO ESTATEGIKOA</b> 4.1.2</p>	<p><b>LANKIDETZA HEZKUNTZA SAILEKO BESTE ZERBTZU ETA UNIATE BATZUEKIN ETA BESTE SAIL ETA ERADUNDE BATZUEKIN</b></p>
<p><b>4. JARDUERA: SAILAREN ILDO ESTRATEGIKOAK BULTZATZEN LAGUNTZEA. HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOARI INFORMAZIOA ETA PROPOSAMENAK HELARAZTEA BERE PROZESUAK KUDEATZEN LAGUNTZEA</b></p>	
<p><b>INPLIKATUTAKO URTEKO HELBURUAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Hezkuntza prozesuak</b> COVID-19ak eragindako egoera epidemiko-sanitarioari egokitzeko Sailak ezarritako ezohiko neurriak betetzen direla egiaztatzeko prozeduren diseinua eta garapena. (1.a)</li> <li>- Ikuskaritzak irakaskuntza-funtzioaren inguruan egiten dituen jardueretarako erreferentzia-esparru kontrastatu bat izatea, bai eta hura hobetzen lagunduko duen prestakuntza-ebaluazioko eredu bat ere. (2.b)</li> <li>- Ikasleen ebaluazio objektiborako eskubidea bermatzeko estrategia eraginkorrak eta baliozkotuak izatea, presentzialtasun-egoeran zein ez-presentzialtasun-egoeran. (1.b)</li> <li>- <b>Zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko</b> prozesua eguneratzea: diseinu berria. (2.a)</li> <li>- <b>Hezkuntza Administrazioak</b> bere <b>ildo estrategikoak</b> bultzatzeko abian jartzen dituen programei buruzko <b>ebaluazio-txostenak</b> egitea eta helaraztea. (3.b)</li> <li>- Jardunbide egokiak, hobetzeko iradokizunak, praktika berritzaileak eta abar jasotzeko prozedurak ezartzea, horien bideragarritasuna aztertzea eta ezartzeko eta ebaluatzeko balizko estrategiak zehaztea. (6.3)</li> <li>- Hezkuntza-sistemaren baliabideei, prozesuei eta emaitzei buruzko <b>informazio garrantzitsua lortzeko</b> tresnak eta prozedurak hobetzea, Hezkuntza Administrazioak eta zerbitzuak berak erabakiak hartzea errazteko (3.c)</li> <li>- Administrazioak eta herritarrek (Zuzenean, erregistro elektronikoa, Tramitagune, eta abar) egiten dituzten <b>eskaerak</b> biltzeko eta kudeatzeko egungo prozedurak aztertzea eta ebaluatzea, eraginkorragoak izan daitezten. (3.a)</li> <li>- <b>Langileak kudeatzeko prozedurekin lankidetzan</b> aritzea, araudia sortzen eta doitzen aholkatzea eta laguntzea, informazioa biltzea, behar duten egoeretan orientazioa eta bitartekotza ematea, etab. (3.b)</li> <li>- Administrazioari proposamenak helaraztea, eskubideak eta betebeharrak baliatzeko bermearekin lotutako prozedurak egoki kudeatzen laguntzeko, jarraibideak eta/edo araudia sortzen lagunduz, edo jarduera zehatzen kudeaketan eta ebaluazioan parte hartuz. (1.c)</li> <li>- Ikuskaritzako web orria eguneratuta edukitzeko prozedurak ezartzea, ikastetxeentzat eta, oro har, herritarrentzat interesgarria den informazioarekin. (3.d)</li> <li>- Ikuskaritza-zerbitzuen katalogoa hezkuntza-komunitatearen artean argitaratzea eta zabaltzea. (3.d)</li> </ul>	
<p><b>INPLIKATUTAKO PROZESUAK:</b> PR 0213.- IKASTETXEAK HOBETZEN LAGUNTZEA; PR 0223.- ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN BERMEA. ARAUEN KONTROLA; PR 0243 PROGRAMEN JARRAIPENA – SISTEMAREN HELBURUAK;</p> <p><b>AZPIPROZESUAK:</b> Kanpoko eskarien kudeaketa; Eskabideak eta Jakinarazpenak; V-92 Batzordea. LANBIDE-HEZIKETA: 3urteko OLH; DUAL/ETHAZIREN PRESTAKUNTZA-IBILBIDE BERRIAK ERALDATZEN HAUSPOA EUSLE</p>	

**JARDUERAREN DESKRIBAPENA:**

Jarduera hau hiru bloke handitan aurkezten da:

**A) Sailaren ildo estrategikoak bultzatzeko lankidetzak-jarduerak.**

Jarduera horiek, funtsean, Administrazioak sustatzen dituen programen jarraipenean oinarritzen dira, honako hauei dagokienez: aniztasunarekiko arreta, ekitatea, metodologia berrien sustapena, ikastetxeetako kudeaketaren hobekuntza, zuzendaritza-eginkizuna, irakaskuntza-funtzioa, curriculum, ikasleen emaitzen ebaluazioa eta hobekuntza, eta abar.

Informazio horrek, oro har gehituta eta aztertuta, hezkuntza-administrazioaren erabakiak errazago hartzen lagunduko duten proposamenak egiteko aukera emango du.

Programa horiei Ikuskaritzak egingo dien jarraipena ikastetxeen hobekuntzari laguntzeko ikuspegitik garatuko da, 1. jardueran deskribatutako gainbegiratze-ereduaren arabera.

Hona hemen jarduera batzuk:

- Sailburuordetzak bultzatutako Bizikasi ekimenaren hedapenaren jarraipena.
- Eraldatzen, Hauspoa, Eusle, Hezkidetzak programen jarraipena.
- Haurren eta nerabeen babesgabetasuneko eta tratu txarreko, sexu-jazarpeneko eta sexu-abusuko egoerei aurrea hartzeko eta hezkuntza-eremuan jarduteko protokoloa eguneratzen eta aplikatzen laguntzea (protokoloa 2016ko azaroaren 15ean argitaratu zen).
- Hezkuntza Sailburuordetzak bere ildo estrategikoak bultzatzeko eta Covid-19 egoerari aurre egiteko proposatutako beste programa batzuekin lankidetzan aritzea.
- Sailaren jarraibideak, ebazpenak eta beste arau batzuk egiten eta berrikusten laguntzea.

Lanbide Heziketaren eremua:

- Aldaketa metodologikoen jarraipena egitea eta eraginkortasunez lortzea prestakuntza-errendimendu handia lortzeko helburua. (ETHAZI)
- DUALen prestakuntza-ibilbide berriak.
- Espezializazio-ikastaroak.
- Antolaketa-aldaketen jarraipena egitea eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei jarraipena emateko eta premia espezifikoak dituzten kolektiboek erantzuteko helburua lortzeko orduan duten eraginkortasuna zaintzea. (OLH 3 urte).

**B) Informazioa eta proposamenak hezkuntza-administrazioari helaraztea**

Esparru horretan, honako jarduera hauek egingo dira, besteak beste:

1.- Txostenak egitea eta hezkuntza-administrazioari helaraztea:

- Ikuskaritzak ikastetxeetan egiten dituen jarduerari dagokienez:
  - Administrazioak hezkuntza-komunitatearen eskaerei erantzutea errazteko;
  - Hezkuntza-administrazioaren informazio-beharrei erantzuteko

Txosten horietan, hezkuntza-sistemaren egoerari, beharrei eta itxaropenei buruzko datuak ez ezik, proposamenak ere jasoko dira, erabakiak hartzen laguntzeko.

2.-- **Hobetu daitezkeen alderdiei**, disfuntzioei eta sistemaren proposamen orokorrei buruzko informazioa ematea, hala nola araudia egokitu edo eguneratzeko beharri buruzkoa, ikastetxeetan edo Sailaren mendeko beste erakunde batzuetan ikusitako zailtasunei buruzkoa, etab.

3.- **Hezkuntza-administrazio**ko arduradunei egunero helaraztea covid-19 egoerari buruz jasotako informazioa, horretarako garatutako datu-bilketako tresnaren bidez.

**C) Prozesuak kudeatzeko lankidetzak-jarduerak**

Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritzea, besteak beste, honako jarduerak hauek garatzeko: irakasleak atxikitze prozesuak, lan-egonkortze publikoak, batxilergoko aparteko sariak, USE antolatze lankidetzak, administrazio-prozesuak baremazioak, Ikuskaritzaren lankidetzak eskatzen den batzordeetan parte hartzea, unitateei aholkularitza ematea, etab.

<p><b>LERRO ESTARTEGIKOA</b> 4.1.3</p>	<p><b>IKUSKARITZA ZERBITZUAREN HOBEKUNTZA</b></p>
<p><b>5. JARDUERA:</b> <b>JARDUERAREN ESTRATEGIA ETA ERAGINKORTASUNA HOBETZEA.</b> <b>INPLIKAZIOA BULTZATZEA. BERRIKUNTZA.</b></p>	
<p><b>INPLIKATUTAKO URTEKO HELBURUAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikuskaritza-jardueren memorien emaitzak aztertzea, <b>egungo jarduerak (AZ) berrikustea</b>, zentroak <b>hobetzean</b> sortzen den <b>inpaktuaren</b> ikuspegitik, eta <b>jarduera-eremu berriak</b> identifikatzea. (2.b)</li> <li>- Ingurune hurbileko, Estatuko eta Europako Ikuskaritzekin lankidetzan aritzea, bai eta hezkuntza-inguruneko beste erakunde batzuekin ere, berrikuntza sustatzen duten jardunbide egokiak trukatzeko. (6.1)</li> <li>- <b>Berrikuntza-taldearen</b> jarduera bultzatzea, funtzioak, zereginak, bileren maiztasuna, lan-dinamika eta abar eguneratuz edo zehaztuz, Zerbitzua hobetzen lagunduko duten proposamen berritzaileak izateko. (6.2)</li> <li>- Jardunbide egokiak, hobetzeko iradokizunak, praktika berritzaileak eta abar jasotzeko prozedurak ezartzea, horien bideragarritasuna aztertzea eta ezartzeko eta ebaluatzeko balizko estrategiak zehaztea. (6.3)</li> <li>-Hezkuntza-sistemaren baliabideei, prozesuei eta emaitzei buruzko <b>informazio garrantzitsua lortzeko</b> tresnak eta prozedurak hobetzea, Hezkuntza Administrazioak eta zerbitzuak berak erabakiak hartzea errazteko (3.c)</li> <li>- Ikuskaritzako langileek ideia berritzaileak proposatzea bultzatuko duten prozedurak aktibatzea (6.4)</li> <li>- <b>Kanpoko eskariak kudeatzeko</b> tresnaren ezarpena amaitzea eta haren erabileraren emaitzak ebaluatzea. (3.b)</li> </ul> <p>...hiru urteko 4. eta 5. helburuekin lotutako urteko helburu guztiez gain.</p>	
<p><b>INPLIKATUTAKO PROZESUAK:</b></p> <p>MP 01: Plangintza eta Antolaketa Estrategia  PR 0101 Misioa identifikatzea eta berrikustea  PR 0102 Ikuskaritzaren estrategia: sistemaren berrikuspena  PR 0103 Antolaketa-egitura  PR 0104 Barneko eta kanpoko komunikazioa</p> <p>MP03: giza baliabideen kudeaketa  PR 0301 Langileen hornidura  PR 0301 Langile berrientzako harrera  PR 0301 Langileen prestakuntza eta euskalduntzea</p> <p><b>ERLAZIONATUTAKO AZPIPROZESUAK:</b>  AZ guztiak</p>	
<p><b>JARDUERAREN DESKRIBAPENA</b></p> <p>Jarduera horietako gehienak lantalde espezifikoek egingo dituzte. Jarduera horiek honako hauek dira:</p> <p><b>Eremu estrategikoarekin lotutakoak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Kanpoko auditoretzaren ondorioetatik eta kanpo-kontrastetik eratorritako jarduketa-plana egitea.</li> </ul>	



-2020-2021 ikasturtean egindako Misioa, Ikuspegia eta Balio eguneratuak eta Ikuskaritza-zerbitzuen katalogoa langileen eta interes-taldeen artean zabaltzea.

-2020-2021 ikasturtean hasitako azpiprozesuak berrikusten jarraitzea, kalitate-batzordeak eta ikuskatze-batzordeak egindako jarraibideen arabera, haien eraginkortasuna hobetzeko aukerak aztertzeke. Jarduera hori AZ guztien plangintza-fitxan sartuko da.

-Arabako lurraldean egindako pilotajearen ondoren, gainerako lurralde edo eremuetan kanpo-eskariak kudeatzeko tresna ezartzea. Sarrera eta irteeren eskema bat egitea, zerbitzu eskatzaileekin kontrastatuta.

-Kalitate Batzordeak kudeaketa aurreratuko eredurantz aurrera egitea sustatuko du, Euskalitekin bigarren kanpo-kontraste bat eskatuz. **Pertsonak** eremua ere planifikatzen jarraituko da, eta beharrezkotzat jotzen den prestakuntza garatuko da.

-Helburuak lortzeko adierazleak aldizka berrikusteko tresnak eta prozedurak hobetzea. Ikuskariei tresna horietara sarbidea erraztea. (SharePointeko adierazleen koadroak).

-Ikuskaritzako web orriaren diseinua hobetzen jarraitzea, bere funtzioen irudi doituagoa emateko eta edukira sartzeko errazteko.

-Alde interesdunekin komunikatzeko bideak eta prozedurak bultzatzea eta hobetzea: ikastetxeetako zuzendaritzekin eta administrazioko gainerako zerbitzuekin ez ezik, OOGekin/Eskola Kontseiluekin/Gizarte Kontseiluarekin, familiekin, irakasleekin, ikasleekin, premiei, iritziei eta proposamenei buruzko informazioa biltzeko.

-Egindako jardueren emaitzak aztertzea, haien eraginkortasuna hobetzea sustatzen duten ondorioak lortzeko.

-Barneko eta kanpoko auditoretzak egitea, horien emaitzak aztertzea eta dagozkion jarduerak gauzatzea.

-Prozesuen mapa berria egitea, eta AZak bertan definitutako 4 MPen arabera berrantolatzea.

-Txostenen edukiaren kalitatea ziurtatzeko aukera emango duten estandarrak definitzea eta zabaltzea.

### **Pertsonen eremuarekin lotutakoak**

-Ikuskaritzako COVID-19 kontingentzia-plana eguneratzea, lurralde-espezifikotasunak barne hartuta.

-Ikuskariaren eta ikuskaritzaren kompetentzia-profila hobetzen jarraitzea, testuinguruaren beharretara egokituz.

-Ikuskaritzak diseinatutako irakaslearen profila zabaltzea, irakaskuntza-funtzioa ebaluatzeko eredu bat diseinatzeko proposamen bat lantzen jarraitzea eta ebaluazio hori arautuko duen araudiaren zirriborro-proposamen bat egitea.

-Eremu bakoitzean eta Ikuskaritza-zerbitzuan oro har dauden espezializazio-beharrak identifikatzea. (Ebaluazio- eta prestakuntza-prozesuak)

-2020-2021 ikasturtean landutako tresnaren diseinua berrikustea, interes eta gaitasun pertsonalekin bat datozen zereginak edo lan-esparruak banatzeko eta plantillako kide berrien artean hedatzeko.

-Prestakuntza-ekintzak planifikatzea, ikasturte honetan garatu beharreko zereginak garatzeko eta berehalako premiei eta erakundeko pertsonen gaitasunen garapen progresiboari erantzuteko.

-2020-2021 ikasturtean birdiseinatutako harrera-plana ezartzea.

-Ikuskari berrientzako tutoretza-plana.

-Ezagutza transferitzeko plana.

-Barneko eta kanpoko egungo komunikazio-prozesuak aztertzea eta horien eraginkortasuna hobetzen lagunduko duen proposamen bat egitea.

-Hezkidetzak: prestakuntza, Ikuskaritzak Sailaren II. Berdintasun Plana garatzen lagun dezan

-Euskara Batzordea: prestakuntza, Ikuskaritzak Sailaren VI. Euskara Plana garatzen lagun dezan

-Zerbitzu-beharren arabera, zona-aldaketak errazteko eta zona-burutzako funtzioak esleitzeko prozedurak garatzea, eta, beharrezkoa balitz, Zerbitzu Eginkizunetan Ikuskaritza-plazak betetzeko hautagaien zerrenda zabaltzeko prozedurak garatzea. Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzari eskatuko zaio dagozkion deialdiak argitaratzeko

#### **Bezeroak edo interes-taldeak eremuarekin lotutakoak**

Haien premiei zenbateraino erantzuten diegun jakiteko eta indarguneak eta hobekuntza-ekintzak identifikatzeko; estrategia berriak abian jartzeko eta ebaluatzeko; eta, interes-taldeen asebetetze-mailari buruzko informazioa lortzeko. Izan ere, hainbat arrazoi direla medio, ez zen horiei buruzko informaziorik lortu lehenago.

#### **Berrikuntzaren arloarekin lotutakoak:**

-Beste Sail eta erakunde batzuekiko lankidetzak (Saileko beste zuzendaritza batzuk, EAEko beste Sail batzuk, estatuko beste Ikuskaritza batzuk, Europako Ikuskaritzak, etab.), eta esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko.

-Ikuskaritzak egindako dokumentazioa ingelesez argitaratzea. Interesa duten pertsonen online ingeles ikastaro bat eskaintzea.

-Interesa duten taldeen arteko banaketa eta Ikuskaritzaren webgunean Zerbitzuen Katalogoa jartzea

-Berrikuntza zaintzeko taldea: funtzioak, zereginak eta lan-dinamika zehaztea. Ideia berritzaileak (barrukoak eta kanpokoak) biltzeko iturriak identifikatzea. Lortutako informazioa aztertzea, erakundearen hobekuntzak eragingo dituzten jardunbide egokiak identifikatzeko. Arriskuak eta aukerak lantzeko estrategiak planifikatzea.

-Estatuko eta nazioarteko ekitaldietan parte hartzea: Kongresuak eta txostenak eta komunikazioak aurkeztea. SICik (Standing International Conference of Inspectorates) antolatutako hainbat ekitalditan parte hartzea. Lankidetzak-erakunde horretan Europar Batasuneko herrialde eta eskualdeetako hezkuntza-ikuskaritzak elkartzen dira.

## 5.- IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA. IKUSKARITZA FUNTZIOAREN EBALUAZIOA.

### 5.1 IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA PLANA

4. eta 5. Hirurteko helburuen barruan, Ikuskaritzaren prestakuntza eta haren jardunaren ebaluazio-prozesuak ezinbestekoak dira jardueren garapen eraginkorra eta etengabeko hobekuntza lortzeko.

2021-2022 ikasturteko prestakuntza-planak urteko plan honetan proposatutako helburuak lortzen lagundu behar du. Era berean, Ikuskaritza-plantillaren behar profesionalak kontuan hartu behar dira. Horietako batzuk joan den ikasturteko gogobetetze-mailari buruzko inkestak jaso dira, eta gaitasun profesionala garatzeko eta egindako lanen kalitatea hobetzeko bide gisa planteatu behar dira.

Ikasturte honetarako aurreikusitako prestakuntza-jardueren zerrenda V. eranskinean dago. Hasierako proposamena da, eta osatzen joango da gaitasun profesionalak garatzen eta hobetzen lagunduko duten prestakuntza beharrak eta prestakuntza aukera berriak sortzen diren heinean, bai norbanakoarenak, bai zerbitzu osoarenak. Beraz, ikasturtean zehar beharrezkotzat jotzen diren egokitzapenak egingo dira.

Tresna bat jarriko da martxan, Ikuskaritza funtzioaren kompetentzia profesionalak erregistratzeko aukera emango duena, hiru eremutan sailkatuta: « Jakin », « Egin » « Izan ». Horiek ikasturte honetarako proposatutako prestakuntza-jardueretan garatuko dira. Horrela, jarduera horiek gaitasun horietako bakoitza garatzen nola laguntzen duten ikusi ahal izango da, baita berariazko prestakuntza-prozesuak behar dituztenak aurreikusi ere.

Bestalde, ikasturte honetan barne-ebaluazioko prozesu bat ezarriko da arreta handiagoa behar duten kompetentzia profesionalak identifikatzeko. Horren emaitza erabiliko da, orain arte erabili diren gogobetetze-inkestekin batera, prestakuntza-beharrak identifikatzeko prozedura sistematiko bat ezartzeko, eta prozedura horretan lehentasuna emango zaie hezkuntzako Ikuskaritzaren lanbide-profilean jasotako adierazleei.

Plan hori ebaluatzeko, kontuan hartuko da jarduera bakoitzaren helburuak zenbateraino lortu diren (jarduera bakoitzaren balorazio-inkestak), eta, prestakuntza-prozesuen eraginkortasuna areagotze aldera, haren eragina neurtzeko prozedurak bilatuko dira (ikus 5.d.2. helburua: prestakuntzaren eragina neurtzeko prozedurak izatea).

Azaldutakoaren arabera, ikasturte honetan honako hauek antolatuko dira:

- Urteko plan honetako helburu eta ekintzekin zuzenean lotutako alderdiei buruzko informazio- eta prestakuntza-saioak, ikastetxeetan esku hartzeari lotutako alderdiei arreta berezia jarrita.
- Gai orokor zein espezifikokoak dituzten saioak edo ikastaroak, ikuskarrien garapen eta heldutasun profesionala bultzatzeko.
- Araudia eguneratzeko saioak, dagozkien argitalpen ofizialen arabera, ahal dela prestakuntza-kapsula formatuan, hau da, lan-saio labur eta sarrietan.
- Ikuskaritzak bere ohiko lanean erabiltzen dituen aplikazio informatikoei buruzko prestakuntza. Jarduera hau ikuskariei eta administrariei zuzenduta dago.
- Erakundearen estrategiarekin eta kudeaketa-sistemearekin lotutako eremuei buruzko prestakuntza, ahal dela prestakuntza-kapsula formatuan.
- Euskararen erabilera-plana: diagnostiko-ebaluazioaren emaitzetan aurrera eginez, prestakuntza-/informazio-saioak antolatuko dira hiru lurraldeetan, Hezkuntza Ikuskaritzan euskara erabiltzeko protokoloa garatzeko eta erabileraren maiztasuna indartzeko.

Hainbat prestakuntza-estrategia edo -metodologia bultzatuko dira, besteak beste, berdinen arteko prestakuntza eta on-line prestakuntza. Saioak osoko bilkuran edo zonalde edo lurraldeka edo lan -taldeen arabera egin ahal izango dira.

Gainera, foro eta jardunaldietan parte hartzea sustatuko da, non Ikuskaritzaren interesekoak izan daitezkeen alderdiak landuko diren, eta parte-hartze horren ondorioz eskuratutako ezagutzak partekatzea erraztuko duten prozedurak bultzatuko dira.

## **5.2. IKUSKARITZA-FUNTZIOAREN EBALUAZIOA**

Egungo ebaluazio-eredua Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuan dago definituta, eta erreferentetzat ditu ikuskaritza-eginkizuna betetzeko beharrezkoak diren gaitasun tekniko-profesionalak, sozialak eta etiko-profesionalak.

Joan den ikasturtean, lehen urratsa eman zen Ikuskaritza-funtzioaren kompetentzia-profilaren eguneratzean. Hori izango da ikasturte honetan kontuan hartuko den erreferentzia, bai ebaluazio- eta hautaketa-prozesuetan, bai ikuskaritza-zerbitzuaren prestakuntza- eta espezializazio-premia orokorrak eta zonakoak identifikatzean.

Ebaluazio honen ikuspegitik, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzako zerbitzuaren hobekuntzak bi alderdi ditu:

- Gaitasun indibidualak hobetzea
- Zerbitzua hobetzea.

### **Gaitasun indibidualen ebaluazioa:**

Aipatutako dekretuak aurreikusten du zerbitzu-eginkizunetan egiten diren ikuskarien luzapenek egindako lanaren ebaluazio positiboa izan beharko dutela. Horren arabera, Ikuskaritzan zerbitzu-eginkizunetan dauden pertsonak ebaluatuko dira, horiek luzatzeko ezinbesteko baldintza gisa. Ikasturte honetan ebaluazio horretarako erabiltzen den txosten-eredua eguneratuko da, erreferentzia gisa ikuskarien gaitasun-profila hartuta.

### **Zerbitzuaren gaitasunen ebaluazioa:**

Ikuskaritza-zerbitzu osoaren gaitasunen ebaluazio orokorra egingo da. Ebaluazio horri esker, etorkizuneko hobekuntza- eta prestakuntza-planak zehaztuko dituzten indarguneak eta hobekuntza-arlo orokorrak hautemango dira.

### **Zerbitzuaren espezializazio-behar orokorrak aztertzea:**

Ikuskaritza-zerbitzuaren behar orokorrak zeintzuk diren aztertuko da, bai zonaren ikuspegitik, bai lurraldearen ikuspegitik. Premia orokor horiek kontuan hartuko dira prestakuntza-prozesuetan.

## **ZERBITZUKO BESTE EBALUAZIO-PROZESU BATZUK:**

### **Plantillako kide berriak hautatzeko prozesuak:**

2021-2022 ikasturtean hainbat ikuskarik erretiroa hartzea aurreikusten da, eta, beraz, ikuskariak hautatzeko prozesu berriak jarri beharko dira martxan, Ikuskaritza-eginkizunak zerbitzu-eginkizunetan betetzeko.

Era berean, datozen ikasturteetan erretiroa hartuko duten ikuskarien kopurua handia izango denez, 2022-2023 ikasturterako ikuskaritzako EPE baterako deialdia eskatu beharko da.

Beharrezkoa izango da Harrera Plana eta ebaluazio-prozedurak berrikustea, gaitasunen garapenera egokitzeko eta prestakuntza-izaera handiagoa izateko.

## 6.- IKUSKARITZAREN ANTOLAKUNTZA.

Ikuskaritzaren antolamendu-egitura Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 9. artikuluan jasota dago.

Hezkuntza Sailburuordetzaren menpe, Hezkuntza Ikuskaritza Ikuskaritza Zentralean, lurralde-unitateetan eta Hezkuntza Ikuskaritzako zonetan egituratzen da.

Ikuskari Nagusiak (Hezkuntza Sailburuordetzaren mende dago) eta hiru ikuskari zentralek osatzen dute Ikuskaritza Zentrala. Ikuskaritzaren plangintza orokorra, prestakuntza eta kontrola ditu oinarritzko eginkizun, bai eta parte-hartzea sustatzea ere. Gainera, Ikuskaritza Zentralari dagokio hiru urteko eta urteko plan orokorren jarraipena eta ebaluazioa egitea, eta sistema ebaluatzeke eta berrikusteko txostenak egitea.

Lurralde historiko bakoitzak lurralde-unitate bat du, eta haren buru Ikuskaritzako lurralde-burua dago, zuzenean Ikuskari Nagusiaren mende dagoena. Ikuskaritzako Lurralde Unitate horien egoitza Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako hiriburu bakoitzean dago, Gipuzkoan izan ezik, bi egoitza baititu: Donostia eta Eibar.

Ikuskaritzako lurralde-unitateak Ikuskaritza-zona baten edo batzuen bidez antolatzen dira, eta zonako ikuskari-buru batek zuzentzen ditu.

Guztiarekin, Ikuskaritzak urteko planaren ekintzak eta koordinazio-prozesuak garatzen ditu batzorde edo lantaldeen bidez, hala nola:

- **Lurralde arteko Batzordea**, Ikuskaritza Zentralak eta Ikuskaritzako lurralde-buruek osatzen dutena. Besteak beste, honako hauetaz arduratzen da: Ikuskaritzaren Urteko Plana egiteaz, jarraipena egiteaz eta ebaluatzeaz, hiru lurraldeetako Ikuskaritza-jarduerari buruzko irizpideak bateratzeaz, prestakuntza-eskaerak aztertzeaz eta erantzuteaz eta urteko planaren garapenean sortzen diren gorabeherei irtenbideak emateaz.
- **Ikuskatze Batzorde Nagusia**, Lurralde arteko Batzordeko kideek eta zonako buruek osatzen dutena. Erakundearen jarduera orokorra gainbegiratzen du, ikastetxeetan egiten diren jardueren integrazioa, koherentzia eta osagarritasuna bermatzeko, eta, sistemaren ikuskatze orokorraren emaitzak aztertu ondoren, ondorioak eta proposamenak egiten ditu, administrazioa eta zerbitzua bera bideratzeko. Ikasturte honetan zehar, batzorde honek bere jarduna sendotu behar du eta lanean jarraitu behar du, lantaldeen egitura pixkanaka hobetzen joateko pertsonen lidergoa eta parte-hartzea sustatzeko.
- **Azpiprozesu-taldeak**, Ikuskatze-jarduerak diseinatzeko, ezartzeko, bultzatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeke sortutako lantaldeak sortzen dira. Ikasturte honetan, talde horietako zonako eta lurraldeko mailak osatzen dituzten pertsonen arteko koordinazioa sendotuko da, informazioa behar bezala transmititzen dela eta ikuskariek zonetan egin behar dituzten lanak garatzen direla bermatzeko.
- **Lan-batzordeak**, helburu zehatzak garatzeko edo gai zehatzetan lan egiteko sortutako lan-taldeak, maiz iraupen mugatua dutenak. Ikasturte honetan, hainbat sortuko dira urteko plan honen helburuetako batzuei lotuta, datorren ikasturtean garatu beharko diren jarduerak planifikatzeko.

Batzorde horietan talde-lana, lidergo partekatua eta langile guztien parte-hartzea eta inplikazioa bultzatuko dira zerbitzuaren helburuak lortzeko. Erakundeko pertsonen adierazitako nahiak eta zaletasunak ere kontuan hartuko dira.

- **Kalitate Batzordea.** Ikasturte honetan honako jarduera hauetan jasotako zereginen zati bat koordinatu beharko du: ikuskaritza-zerbitzua hobetzea, estrategia hobetzeko jarduerak, jardueren eraginkortasuna, inplikazioa eta berrikuntza bultzatzea azpiprosesu guztien berrikuspenari, bereziki giltzarriei, eta arriskuaren eta eraginaren azterketa egin beharko du. Era berean, erakundea kudeaketa aurreratuaren eredura hurbiltzeko lan egingo du, eta barne-komunikazioa (horizontala eta bertikala) eta kanpo-komunikazioa hobetzen lagunduko duten prozedurak planifikatzen lagunduko du.
- **Euskararen Erabilera Batzordea.** Komunikazioetan, txostenetan eta ikastetxeekiko harremanetan euskararen erabilera sustatzea eta hobetzea du helburu. Ikasturte honetan, osasun-alarmaren egoeraren ondorioz aurreko ikasturteetan egin ezin izan ziren ekintzak garatuko dira.
- **Berdintasun Planaren Batzordea.** Batzorde honek jarraituko du bultzatzen Ikuskaritzari esleitutako ekintzak bete daitezzen hezkuntzaren arloan eskumena duen organoak bultzatutako berdintasuna, hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa sustatzeko plan estrategikoetan (prestakuntza barne).
- **Berrikuntza Batzordea.** Etorkizuneko ikuspegiarekin aurrera egiteko eta datozen ikasturteetan izango dugun ziurgabetasun-egoeran etengabe agertuko diren premia eta erronka berriei erantzuteko, erantzun azkar eta eraginkorrak aurkitzea erraztuko duten mekanismoak ezarri behar dira.

Helburu horrekin, Lurralde Arteko Koordinazio Batzordeko kideek osatutako lan-talde baten jarduera bultzatuko da. Honako hauek izango dira lantaldearen egitekoak:

Idea berritzaileak biltzea, hauen bidez:

- Prozedura arinak ezartzea, ikuskaritza-plantillako kideek ideia berritzaileak proposa ditzaten.
- Estatuko gainerako Erkidegoetatik nahiz nazioartetik datozen ekarpen eta ideia berritzaileak biltzea.
- Ekarpen eta ideia horien azterketa. Jardunbide egokiak identifikatzea. Erakundean duten aplikagarritasunari buruzko erabakiak hartzea.
- Antzeko ezaugarriak dituzten beste erakunde batzuekin konparazioak egitea.
- Arriskuen eta aukeren identifikazioa sistematizatzea, bai eta horiei erantzungo dieten prozesuak eta egiturak dinamizatzea ere.

Batzorde honek gure erakundean jardunbide egokiak garatzeko neurriak ezartzea bultzatuko du. Jarduera horien helburua ikuskatze-zerbitzuaren ja

## IKUSKARIEI ZENTROAK ESLEITZEA

Alde bakoitzean egin beharreko talde-lana alde batera utzi gabe, hezkuntzako ikuskari bakoitzak erreferentziako ikuskaria den ikastetxe kopuru jakin bat du esleituta, eta ikuskatzearen zuzeneko arduraduna izango da, bai eta bere esku-hartzearen ondoriozko administrazio-jarduketena ere (98/2016 Dekretuaren 9. artikuluko 7. paragrafoa).

Ikastetxeen esleipen hori aldian-aldian berrikusi behar da; izan ere, ikastetxeei ematen zaien arreta aberastu egiten du, epe luzera, ikuskarien estiloen eta prestakuntzaren aniztasunak, eta, gainera, objektibotasuna sustatzen du haien balorazioetan eta, ondorioz, erabakiak hartzean.

Ikastetxez aldatu behar izanez gero, aldaketok irailean zehar izango dira eraginkorrak, zentroz aldatzen diren ikuskariek bertan egiteke dauden zereginak amaitzen dituztenean.

Prozesu hori guztia gauzatzeko, 98/2016 Dekretuaren 13.d eta 15.e artikuluetan ezarritako eskumenak eta eginkizunak hartuko dira kontuan.

## LURRALDEETAKO URTEKO PLAN OROKORRA ZEHAZTEA

Plan hau erreferentzia izango da urteko lurralde-planak egiterakoan, lurralde bakoitzean plan hori zehaztea ekarriko baitute.

Zona bakoitzeko ikuskaritza-taldeak antolatuko ditu ikasturte bakoitzeko jarduerak, Ikuskari Nagusiak ezarritako urteko planaren arabera eta Ikuskaritzako lurralde-buruak egindako lurralde-planaren arabera.

### 7.- 2021-2022 URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA. EGUNERATZEA.

Urteko Plan honen betetze-mailaren ebaluazioa Lurralde Arteko Batzordeak egingo du, bai eta Lurralde Burutzek ere, zonako burutzen koordinazio-bileretan eta zonako lantaldeen bileretan.

Gainera, hiru hilean behin, Ikuskatze Batzorde Nagusiak (Ikuskaritza Nagusia, lurralde-buruak eta zonako buruak) ikuskariei bidaltzen zaizkien inkesten emaitzak aztertuko ditu, egindako lanari buruzko balorazioak jasotzeko.

2021-2022 ikasturtea amaitzean, Urteko Plan hau ebaluatuko da, honako hauek kontuan hartuta:

- Lurralde Arteko Batzordeak ikasturtean egindako jarraipenaren ondorioak, Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio orokorra eta Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren eraginkortasunari buruzkoa.
- Ikasturtean zehar egindako prestakuntzaren emaitzak, inpaktua neurtzeari dagokionez.
- Proposatutako helburuen lorpen-mailaren jarraipenetik lortutako datuak.
- Auditorien (barrukoak eta kanpokoak) eta kanpo-kontrastearen emaitzak.
- Azpiprosuetako eta lan-batzordeetako taldeek egindako ebaluazioaren emaitzak, egindako lanari eta lortutako emaitzei dagokienez.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barneko eta kanpoko hartzailen gogobetetzea neurtzearen azterketa.
- Ikastetxeen Ikuskatze Memorian jasotako emaitzen azterketa.
- Hezkuntzako Ikuskaritzak eskaintzen dituen zerbitzuen hartzailen iradokizunak, kexak eta erreklamazioak.
- Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren kalitate-politika eta dokumentazioa berrikustearen emaitza.

Urteko Plan honen ebaluazioa Ikuskaritza Zentralak egindako Sistemaren Berrikuspenari buruzko Txostenean (Memoria) jasoko da. Txosten horretan, gutxienez, honako hauek jasoko dira: Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren eragina izan dezaketen iradokizunak, besteak beste, kalitate-politika eta kalitate-helburuak, helburuak lortzearen emaitzak eta prozesu- eta zerbitzu-adierazleak; auditorien emaitzak (barnekoak eta kanpokoak); prozesuetan eta zerbitzuetan gerta daitezkeen desadostasunak; ekintza zuzentzaileen eta prebentzio-ekintzen egoera; gogobetetze-neurketak; iradokizunak, kexak eta erreklamazioak eta hobetzeko gomendioak oro har; eta, Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio orokorra, eta ondorioei buruzko atal bat.

## **URTEKO PLANA EGUNERATZEA**

IX eranskinean, urteko planaren aldaketa posibleak -Batzorde edo lantalde berriak sortzea, helbururen bat betetzeko edo jarduera jakin batzuk egiteko ezintasunaren aurreikuspena, aurreikusi gabeko ekintza berriak...- eta ikaskuntza- eta hobekuntza-mugarriak (egiten diren aurrerapenak eta lorpenak) jasotzeko gune bat aurkezten da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 29  
M<sup>a</sup> Teresa Ruiz López  
Inspectora General de Educación



# ERANSKINAK

ANEXO I

IKUSKARITZAK ZENTROETAN EGITEN DITUEN ESKU-HARTZEEN KRONOGRAMA. 2021-2022 IKASTURTEA

		2020				2021					
		Irail	Urri	Azar	Abend	Urta	Otsai	Mart	Api	Maia	Ekai/uzta
IKASTETXEAK IKUSKATZEA S COVID-19	<b>IKASTURTE HASIERAKO ESKU-HARTZEA</b> Hasierako diagnostikoa: arreta gehiago eskatzen duten alderdiak identifikatu Ikastetxean esku-hartzeko helburuak planifikatu					<b>IKASTETXEAREN JARRAIPENA</b> Jarraipenerako berariazko jarduerak				<b>IKASTURTE AMAIERAKO ESKU-HARTZEA</b>	
	<b>Ikastetxean esku-hartzeko lehentasunezko alderdiak</b> Antolakuntza: memoria-IUP / covi-19-ak sortutako egoera I/I Prozesua: programazio didaktikoak / ebaluazioa Eskubideak: absentismoa /					<b>Ikastetxean esku-hartzeko lehentasunezko alderdiak</b> 1. Hiruhilekoan programatutako jarraipena COVID-19 premien arabera jarduera-eremu berriak				<b>Ikastetxean esku-hartzeko lehentasunezko alderdiak</b> Ondorioak, balorazioak eta proposamenak egitea Ikasturte hasieran proposatutako esku-hartze helburuen lorpena berrikustea FAE mailako informazio-bilketa	
	<b>AZko jarduerak:</b> DAE kontrola; Zuzendaritza-funtzioaren Ebaluazioa; Praktiketako funtzionarioak; Eraldatzen; Hauspoa; Eusle; NCEak; kide anitzeko organoen hautaketa..					<b>AZko jarduerak:</b> Zuzendaritza-funtzioaren Ebaluazioa; Praktiketako funtzionarioak; Eraldatzen; Hauspoa; Eusle; Zuzendarien aukeraketa...				<b>AZko jarduerak:</b> Zuzendaritza-funtzioaren Ebaluazioa; Praktiketako funtzionarioak; Eraldatzen; Hauspoa; Eusle; Egutegiak; akata akademikoak/eskola	
	<b>ESKOLA GIROA</b> Escola jazarpena eta bizikidetzaren kudeaketa Ikastetxe publikoetako langileen aurkako erasoak					<b>ESKOLA GIROA</b> Escola jazarpena eta bizikidetzaren kudeaketa Ikastetxe publikoetako langileen aurkako erasoak				<b>ESKOLA GIROA</b>	
ESKAERAK ETA JAKINARAZPENAK	Eskaerak eta Jakinarazpenak Kanpoko eskariak Sailak eskatutako txostenak Eskariei erantzuteko txostenak Ikuskaritzaren ekimenezko txostenak				Eskaerak eta Jakinarazpenak Kanpoko eskariak Sailak eskatutako txostenak Eskariei erantzuteko txostenak Ikuskaritzaren ekimenezko txostenak				Eskaerak eta Jakinarazpenak Kanpoko eskariak Sailak eskatutako txostenak Eskariei erantzuteko txostenak Ikuskaritzaren ekimenezko txostenak		
Lanpostuaren profileraren egokitzapena; Irakaskuntzarako gaitasuna; Zuzendaritza taldearen izendapena; Etxez etxeko arreta; Irakasleen absentismoa; euskara salbuespenak; Irakasleen titulazioak; Grebak; Diziplinazko espedienteak; Elkarlanerako ekintzak...											

II.ERANSKINA / ANEXO II

**Ikastetxeak hobetzen laguntzea / Contribución a la mejora de los centros educativos**

Azpiprozesua <i>Subproceso</i>	Egiteko aldia <i>Período de realización</i>	Aplikazio eremua <i>Ámbito de aplicación</i>	Ikuskaritza zentrala <i>Inspección Central</i>	Lurralde arteko Taldea <i>Equipo Interterritorial</i>	Lurraldeko Taldea <i>Equipo Territorial</i>	Zereginak <i>Tareas</i>	
<p><b>AZ022004</b></p> <p><b>IKASTETXEEN IKUSKATZEA</b></p> <p><i>SUPERVISIÓN CENTROS</i></p>	<p>Ikasturte osoa</p> <p>Todo el curso</p>	<p>Ikastetxe guztietan</p> <p>Todos los centros.</p>	<p>M. Ruiz</p> <p>X. Balerdi</p>	<p>M. Irazoki</p> <p>P. Macho</p> <p>Inma Pardo</p>	<p>A-1. A. Delgado</p> <p>B.1- P. Macho</p> <p>B.2- A. Agudo</p> <p>B.3- J. Idoyaga</p> <p>B.4- M. Olabarraiga</p> <p>G.1- J. Arakama</p> <p>G.2- M. Irazoki</p> <p>G.3- A. Maiztegi</p>	<p><b>Taldea:</b></p> <p>Jardueraren diseinua, hedapena, jarraipena eta ebaluazioa.</p> <p>Memoria-txostena.</p> <p><b>Erreferentziako ikuskaria:</b></p> <p>Ikastetxeetan esku hartzea.</p> <p>Ikasturte honetan, plan honetako 1. jardueran jasotako alderdietan eragitea.</p>	<p><b>Equipo:</b></p> <p>Diseño, difusión, seguimiento y evaluación de la actividad.</p> <p>Informe memoria.</p> <p><b>Inspector-a de referencia:</b></p> <p>Intervención en los centros.</p> <p>Este curso incidir en los aspectos recogidos en la actividad 1 del presente plan.</p>

Aziprozesua <i>Subproceso</i>	Egiteko aldia <i>Periodo de realización</i>	Aplikazio eremua <i>Ámbito de aplicación</i>	Ikuskaritza zentrala <i>Inspección Central</i>	Lurralde arteko Taldea <i>Equipo Interterritorial</i>	Lurraldeko Taldea <i>Equipo Territorial</i>	Zereginak <i>Tareas</i>	
<b>PRESTAKUNTZA JARDUERAREN IZENA</b>	<b>PRESTAKUNTZA JARDUERAREN HELBURUAK</b>	<b>EGITEKO ALDIA</b>	<b>ORDU KOPURUA</b>	<b>PARTE HARTZAILEAK</b>	<b>OHARRAK (Justifikazioa, prestakuntza-modalitatea...)</b>
<b>ESKOLA ELKARBIZITZA</b>	<p>Bizikasiri, elkarbizitza positiboari, 201/2008 dekretuari, eskola-jazarpenaren protokoloari eta sailburuordearen ebazpenari buruzko informazioa plantilari ematea.</p> <p>AZren argibideei buruzko informazioa plantilari ematea (2021-22ko ikasturterako aldaketak).</p> <p>Ziberbullying-a. Orientabideak.</p> <p>0 eta I. eranskinak. A eta B txostenak betetzeko laguntza-agiriak.</p> <p>Kasuak eta praktika onak bateratzea.</p>	<p>Aaurkeztea eta horri buruzko prestakuntza plantilari ematea.</p> <p>Zonalde/lurraldekako prestakuntza-bilerak, hiruhilekoan behin gutxienez, edo gehiago premien arabera.</p>	10	PLANTILA OSOA	<p>KASUEN AZTERKETA</p> <p>O.T. 1-i eta O.T.5-i lotuta</p>
<b>IKASLEEN ABSENTISMOA</b>	<p>Eskola-absentismoaren kontrola eta jarraipena direla-eta AZ022386an egiten den lana aurkeztea eta ezagutzera ematea.</p> <p>COVID 19ak eragindako absentismoaren jarraipena egiteko 022386 AZn egindako argibide espezifikoko aurkeztea.</p>	<p>Aurkeztea eta gaiari buruzko prestakuntza plantilari ematea:</p> <p>1. hiruhilekoa.</p> <p>Zonalde/lurraldekako prestakuntza-bilerak, hiruhilekoan behin gutxienez, edo gehiago, premien arabera.</p>	8	PLANTILA OSOA	<p>O.T. 1-i eta O.T.5-i lotuta</p>
<b>IRAKASKUNTZA FUNTZIOAREN EBALUAZIOA</b>	<p>Ikuskaritzak 2020-21eko ikasturtean egindako irakaskuntza-perfilari buruzko azterketa plantilari jakinaraztea.</p>	<p>1.hiruhilekoa</p>	4	PLANTILA OSOA	<p>O.T. 2-ri eta O.T.5-i lotuta</p>

<b>PRESTAKUNTZA JARDUERAREN IZENA</b>	<b>PRESTAKUNTZA JARDUERAREN HELBURUAK</b>	<b>EGITEKO ALDIA</b>	<b>ORDU KOPURUA</b>	<b>PARTE HARTZAILEAK</b>	<b>OHARRAK (Justifikazioa, prestakuntza-modalitatea...)</b>
<b>ZUZENDARITZA FUNTZIOAREN EBALUAZIOA</b>	Hezkuntza Sailburuordetzaren planteamendu berriari buruzko formakuntza plantilari ematea eta planteamendu hori plantilarekin kontrastatzea.	2021eko azaroaren 8a  Zonalde/lurraldekako prestakuntza-bilerak, hiruhilekoan behin gutxienez. Gainera, zonalde-bilerak, premien arabera.	5  8	PLANTILA OSOA	SAILBURUORDEA  O.T. 2-ir eta O.T.5-i lotuta
<b>IKUSKARITZAREN ESKU HARTZEAK(bisitak, txostenak, elkarrizketak...)</b>	Ikuskaritzaren esku-hartzeen kalitatea hobetzea, hobetzeko moduko alderdiak identifikatuz eta praktika onak partekatuz.	Hiruhilekoan bat.  Gainera, zonalde/lurraldekako bilerak, premien arabera.	10	PLANTILA OSOA	KASUEN AZTERKETA  O.T. 3 -ri eta O.T.5-i lotuta.
<b>IKUSKARITZAREN PERFILA</b>	Ikuskaritzak 2020-22ko ikasturteetan egin duen ikuskaritza-funtzioaren perfilaren diseinu berria (gaitasunen arabera) jakinaraztea eta plantilarekin kontrastatzea.	Zonalde/lurraldekako prestakuntza-bilerak, hiruhilekoan behin gutxienez. Gainera, zonalde bilerak, premien arabera.	8	PLANTILA OSOA	O.T. 4-ri eta O.T. 5-i lotuta
<b>HEZKUNTZAKO ZEHARKAKO PERTSONALARENTZAT ESTRESA ETA GATAZKAK KUDEATZEA.</b>	Plantilaren estres maila hobetzea.  Aurrera egitea zerbitzuaren kudeaketa hobetzeko prozesuan.	1. hiruhilekoa	10	PLANTILA OSOA	TAILERRA  Ikuskaritzako plantilaren eskaera (asebetetze-inkestak).  O.T. 4-ri eta 5-i lotuta

<b>PRESTAKUNTZA JARDUERAREN IZENA</b>	<b>PRESTAKUNTZA JARDUERAREN HELBURUAK</b>	<b>EGITEKO ALDIA</b>	<b>ORDU KOPURUA</b>	<b>PARTE HARTZAILEAK</b>	<b>OHARRAK (Justifikazioa, prestakuntza-modalitatea...)</b>
<b>KALITATEA KUDEATZEKO SISTEMA (EUSKALIT, ISO, ...)</b>	Gure kudeaketa-sistemari eta beste kudeaketa-sistema batzuetan esku hartzeko behar diren beste eremu batzuei buruzko plantilaren ezagutza hobetzea.	2./3. hiruilekoa	5	PLANTILA OSOA	PRESTAKUNTZA PILDOREN FORMATUA Oinarritzko ildoari lotuta: LO.T. 4-ri eta O.T.5-i lotuta.
<b>LEX TALDEA: ARAU JARDUERA</b>	Hezkuntza-esparruari lotutako arau-aldaketetan eguneratuta egotea.	2./3. hiruilekoa	Zehaztearen zain	PLANTILA OSOA	PRESTAKUNTZA PILDOREN FORMATUA O.T.5-i lotuta
<b>ADMINISTRAZIO PROZEDURA: ALDERDI OROKORRAK.</b>	39/2015 eta 40/2015 legeen funtsezko alderdietan sakontzea, Administrazio Prozedura Erkidearen eta Sektore Publikoko Erregimen Juridikoaren arloetan.	3. hiruilekoa	4	PLANTILA OSOA	Ikuskaritzako plantilaren eskaera (asebetetze-inkestak). O.T.5-i lotuta
<b>LHn GAURKOTZEA (LHren legea, LH DUAL berria, Oinarritzko Lanbide Heziketako 3 urte, espezializazio-ikastaroak ...).</b>	LHri buruzko plantilaren ezagutza hobetzea.	2./3. hiruilekoa Zonalde/lurraldekako prestakuntza-bilerak, hiruilekoan behin gutxienez. Gainera, zonalde/lurralde bilerak, premien arabera..	5	PLANTILA OSOA	O.T. 5-i lotuta



<b>PRESTAKUNTZA JARDUERAREN IZENA</b>		<b>PRESTAKUNTZA JARDUERAREN HELBURUAK</b>	<b>EGITEKO ALDIA</b>	<b>ORDU KOPURUA</b>	<b>PARTE HARTZAILEAK</b>	<b>OHARRAK (Justifikazioa, prestakuntza-modalitatea...)</b>
<b>LHri buruzko NAZIOARTEKO KONGRESUA</b>		LHri buruzko plantilaren ezagutza hobetzea.	Azaroaren 10a-11	10	PLANTILA OSOA	KURSAAL O.T. 5-i lotuta
<b>TITULAZIOAK</b>		Ikastetxe pribatuetan irakaskuntzan aritzeko gutxienezko baldintzei buruzko plantilaren ezagutza hobetzea.	2./3. hiruhilekoa Zonalde/lurraldekako prestakuntza-bilerak. Además, reuniones de zona/territorio, en función de necesidades.	6	PLANTILA OSOA	O.T. 2-ri eta O.T.5-i lotuta
<b>EUSKARA ERABILTZEKO PLANA</b>		Ikuskaritza Zerbitzuan euskararen normalizazioari buruzko diagnostiko-ebaluazioaren emaitzak erreferentziatzat hartuta: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzunen kopurua handitzea.</li> <li>• Erabiltzeko maiztasuna indartzea.</li> <li>• Euskara erabiltzen den esparrua hainbat eta hainbat funtziotara hedatzea.</li> <li>• Euskara erabiltzeko protokoloa Hezkuntza Ikuskaritzan.</li> </ul>	2./3. hiruhilekoa Lurraldekako prestakuntza-bilerak	10	PLANTILA OSOA	2/3 orduko HITZALDIA O.T. 5-i lotuta
<b>SAILAK SUSTATU TAKO PROGRA</b>	<b>EUSLE</b>	Hezkuntzaren esparruan ildo estrategikoak ezagutzea.	URRIAREN 8an Gipuzkoa URRIAREN 20an Bizkaia URRIAREN 21ean Bizkaia URRIAREN 26an Araba	2	PLANTILA OSOA	O.T. 2-ri, O.T. 3-ri eta O.T. 5-i lotuta

PRESTAKUNTZA JARDUERAREN IZENA		PRESTAKUNTZA JARDUERAREN HELBURUAK	EGITEKO ALDIA	ORDU KOPURUA	PARTE HARTZAILEAK	OHARRAK (Justifikazioa, prestakuntza-modalitatea...)
	ERALDATZEN		1.hiruhilekoa	2	PLANTILA OSOA	
	HAUSPOA		1. hiruhilekoa	2	PLANTILA OSOA	
	INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOA IKASTETXEETAN		1. hiruhilekoa	2	PLANTILA OSOA	
	ETHAZI (EN TEKNIKA)		2. hiruhilekoa	8	PRESTAKUNTZA HAU 2020/2021eko IKASTURTEAN EGIN EZ ZUEN PLANTILA	
HEZKIDETZA:	MASKULINITATE BERRIAK	Ikaskuntza-egoeretan pentsamendu kritikoari buruzko hausnarketan sakontzea, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari laguntzeko.	Azaroaren 25a	2	PLANTILA OSOA	RITXAR BACETEren HITZALDIA
	HEZKIDETZA-PILULAK		IKASTURTE OSOAN	5	PLANTILA OSOA	Hezkidetzarako eta genero-indarkeriaren prebentziorako II. Planaren eskaera eta O.T.5.
HAUR ETA NERABEEI SEXU ABUSUAK: OINARRIZKO IKASTAROA (HAEE + EHU).		Haurren kontrako sexu-abusuaren arazora hurbiltzea: definizioa, mitoak argitzea, erasotzailearen eta biktimaren perfilak, nagusitasun-datuak, prozesuak eta protokoloak.	2021/10/04tik 2021/11/22ra	30	Parte hartzen dute: 16	ON LINE O.T. 1-i y O.T.5-i lotuta

<b>PRESTAKUNTZA JARDUERAREN IZENA</b>	<b>PRESTAKUNTZA JARDUERAREN HELBURUAK</b>	<b>EGITEKO ALDIA</b>	<b>ORD U KOPU RUA</b>	<b>PARTE HARTZAILEAK</b>	<b>OHARRAK (Justifikazioa, prestakuntza- modalitatea...)</b>
<b>DIZIPLINA ESPEDIENTEAK</b>	Diziplina-espedienteak irekitzeari buruzko plantilaren ezagutza hobetzea.	2./3. hiruhilekoa	6	PLANTILA OSOA	Ikuskaritzako plantilaren eskaera(asebetetze-inkestak). O.T.5-i lotuta
<b>SAILEKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK EZAGUTU ETA ERABILTzea</b>	Normalean erabiltzen diren tresna informatikoak zehazten diren prozesuetan ezagutu eta erabiltzea. (V92 y cuaderno de centro, Aplicaciones gestión académica)	Lurraldeko saio bana	5	PLANTILA OSOA	Ikuskaritzako plantilaren eskaera (asebetetze-inkestak). O.T. 4.c-ri lotuta
<b>KANPO JARDUERA</b>	Beste ikuskaritza batzuen jarduerak ezagutzea, irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioari eta beste batzuei begira batez ere.	IKASTURTE OSOAN	10	PLANTILA OSOA	O.T.5-i eta O.T.6-ri lotuta
<b>IKUSKARITZA ZERBITZUAREN PREMIEI ETA ESKAEREI ERANTZUNA EMATEKO BESTE BATZUK</b>					

## **VI ERANSKINA**

### **GOGOBETETZE-INKESTEN EMAITZAK**

#### **Ikuskariak:**

- Urteko ikuskaritza-planean jasotako jardueri eta ikastetxeetan egiten diren moduari buruzko iritzia jasotzeko, hiru hilean behin gogobetetze-inkestak erabiltzen dira, besteak beste. Galdetegi anonimo horien bidez jasotako informazioa ikuskatze-batzordean aztertzen da.
- Inkesta horietan jaso zenez, ikuskari gehienek uste dute ikastetxeetan garatutako urteko Planeko jarduerak egokiak izan zirela, esplizituki programatuta ez zeudenak barne. Ikastetxeetako bizikidetzarekin eta absentismoaren kontrolarekin lotutako jarduerak nabarmentzen dira.
- Era berean, ikuskariak adierazi zuten beren jarduerak eragin handia duela ikastetxeetan, eta ikasleen ebaluazioaren eta ikastetxearen antolaketaren eremuetan duen eragina nabarmendu zuten.
- Administrazioari helarazten zaion informazioaren garrantziari eta erabilgarritasunari dagokienez, ikuskariak inpaktua altua dela ondorioztatzen dute, baina zentroetan garatutakoa baino txikiagokoa dela ikusten da.
- Ikuskariak adierazi dute malgutasunez eta arretaz egiten dituztela beren lanak. Datu hori bat dator ikastetxeen pertzepzio orokorrarekin. Gainera, ikastetxeekiko komunikazioa, oro har, azkarra, zuzena eta kalitatezkoa dela ondorioztatzen da.
- Ikuskaritza-zerbitzuaren barruan, urteko planaren garapenean inplikazioa adierazten da, nahiz eta hobekuntza-eremu gisa planaren plangintzan parte-hartzea handitzea proposatzen den.
- Ikuskariak positiboki baloratzen dute lan-giroa, erakundearen lidergoa, kudeaketa-sistemaren funtzionamendua eta barne-komunikazioa.
- Egindako prestakuntza-jardueren balorazioa ere oso altua izan da. Lana egiteko oso erabilgarriak direla ikusi da, eta horrekin jarraitzeko beharra planteatu da.

Guztiarekin, Zuzendaritzak Berrikuspen Txostenean (Memoria) jasotako datu zehatzagoek berresten dituzte ondorio horiek. Orokorrean balorazioak altuak diren arren, alderdi horietako batzuk azpimarratu behar ditugu hobetzen jarraitzeko.

#### **Administrazioko langileak:**

Administrazioko langileen lanaren garrantziaz jakitun, 2020-2021 ikasturtean berriz diseinatu zen langile horien gogobetetze-maila neurtzeko erabiltzen den tresna.

Lortutako datuen azterketatik ondorioztatzen da administrari guztiak ase daudela, maila desberdinetan, beren lanarekin eta lanari buruz egiten den balorazioarekin, nahiz eta kasu batzuetan eskaerak transmititzeko bide arinagoak eskatzen duten.

Inkesten metodologiarekin jarraitzeaz gain, aldian-aldian aurrez aurreko bilerak egiteko beharra azpimarratzen da.

#### **Ikastetxeak:**

Aurreko ikasturteetan egin zen bezala, 2020-2021 ikasturteko azken hiruhilekoan inkesta bat bidali zitzaient ikastetxeei gogobetetze-maila neurtzeko, eta oso harrera ona izan zuen (626 erantzun 820tik; % 76).

Inkesta horien bidez jasotzen denez, ikastetxeetako zuzendaritzek puntuazio horrekin baloratzen dituzte (1etik 10era) ikuskarien jardueraren alderdi hauek:

- Urteko Ikuskaritza Planeko (IIP) jarduerak ezagutzea: 6,21.
- Ikastetxeko erreferentziazko ikuskariaren jardueretik gogobetetasuna: 8,3.
- Urteko Ikuskaritza Planean jasotako kontrol-jarduerak: 7,7.
- Urteko Ikuskaritza Planean jasotako ebaluazio-jarduerak: 7,44
- Erreferentziazko ikuskariaren aldetik jasotako aholkularitza: 8,48
- Erreferentziako ikuskariaren malgutasuna, bere ikastetxean esku-hartzeak egitean: 8,32
- Erreferentziazko ikuskariarekin komunikazio arina: 8,75
- Ikuskariak bere ikastetxean egindako jardueren garrantzia eta erabilgarritasuna: 8,29
- Ikuskariaren bitartekaritza ikastetxean ikasturte honetan sortu diren arazoaren aurrean: 8,28
- Ikastetxeak administrazioko beste zerbitzu batzuekin duen harremanean, ikuskariak emandako orientazioaren erabilgarritasuna. 8,08
- Ikuskariaren esku-hartzeak ikastetxearen antolaketa-alderdiak hobetzen lagundu du: 7,58
- Ikuskariaren esku-hartzeak metodologia- eta ebaluazio-arloko alderdiak hobetzen lagundu du: 7,3
- Ikuskariaren esku-hartzeak bizikidetzaren arloko alderdiak hobetzen lagundu du: 7,6
- Ikuskariaren esku-hartzeak bere ikastetxeko eskubideen eta betebeharren bermea hobetzen lagundu du: 7,72
- COVID-19aren ondoriozko egoerei eta jarduketei dagokienez, baloratu erreferentziazko ikuskariak emandako laguntza: 7,43

Datu horiek ikuskarien asebetetze-inkestatik lortutakoekin erkatuta, ikuskaritza-jarduerak zentroen hobekuntzan duen eraginari buruz zuzendaritzek egiten duten balorazioa ikuskariek eurek hautematen dutenaren antzekoa da. Hala ere, ikastetxeek helarazitako informaziotik ondorioztatzen da ikuskaritzaren jarduna hobetzeko eremuak ikuskaritza-planen hedapenarekin eta horiek metodologia- eta ebaluazio-eremuetan duten eraginarekin lotuta daudela. Beraz, gure planen alderdi esanguratsuenak ikastetxeei ezagutarazteko lanean jarraitzeko beharra ikusten du, indarrean dagoen hiru urteko planerako proposatutako sei helburuak bereziki azpimarratuz, eta ikuskaritza-zerbitzuak ikastetxeen alderdi metodologikoak eta ebaluaziokoak hobetzeko duen eragina handitzeko lan eginez.

#### **Administrazioa:**

Hezkuntzako ikuskaritzak egiten duen lanaren zati handi batek Administrazioako zerbitzuetako arduradunak ditu hartzaile. Hori dela eta, 2020-2021 ikasturteko azken hiruhilekoan inkesta bat egin zen Administrazioako arduradunen gogobetetze-maila neurtzeko. Erantzun-kopurua (27tik 4; % 14) ez zen nahikoa esanguratsua izan ondorioz ateratzeko. Ikasturte honetan, arduradun horiengana iristeko estrategia berriak aztertu behar dira, jasotako erantzunen kopurua handitzeko eta, horrela, interes-talde horrekin ikuskaritza-jardueraren indarguneak eta hobekuntza-ekintzak identifikatu ahal izateko.

## VII. ERANSKINA: AUDITORIEN EMAITZAK ETA EUSKALITEN KANPO-KONTRASTEAK.

### Barne auditoretza

**2021eko apirileko 21ean garatutako barne auditoretzan proposamen hauek egin ziren:**

- Ikuskarrien lana egiteko **baliabide teknologikoak ugaritu eta hobetu** behar dira (lanerako mugikorrek, mantendu informatikoa, aurikularrak..).
- V92an dauden aukerak eta informazioa aprobetxatu ahal izateko **sistemaren ezagutza sakondu behar da.**
- Ikuskariek / Administrazioek V92ra igotzen dituzten beste **dokumentuetarako kode sistema** ezarri behar da.
- Beharrezkotzat jotzen da kudeatzeko sisteman **zentroetako zuzendarien kezak edo asmoak modu egokiagoan jasotzeko prozeduren bat sortzea.**

### Kanpo-auditoretza:

Uztailaren 7an eta 8an egindako kanpo-auditorian, honako hauek nabarmendu ziren erakundearen indargune gisa: hiru Urteko Planaren zehaztapen-maila; Covid-19a testuinguruan ikastetxeen gainbegiratze-jarduera; ikasleen absentismoa kontrolatzeko jarduera; aurrez aurre artatzen ez diren ikasleen jarraipena; ikastetxeetako covid-19 eragin-egoerari buruzko eguneroko informazioa; prozesuak emaitzetara begira arian-arian bideratzea; "Azen eraginkortasun-proiektua"; bigarren hiruhilekoan egindako gogobetetze-inkestan jasotako proposamenei banakako erantzuna ematea; urteko helburuen jarraipena egiteko tresna; lan-kargak aztertze tresnak, horien oreka sustatzeko; tutoretza-prozesuak bultzatzea...

Hobetzeko aukera gisa, prestakuntza-prozesua berrikustea planteatu zen: ikuskari berriei harrera egiteko prestakuntza espezifikoa; balio-aniztasunari buruzko gaitasun-matiz bat definitzea (ILUO: ikuskarriaren profila); prestakuntza-beharrak atzemateko prozesua marraztea; ikastetxeei buruz jasotako informazioa ateratzen den ikuskariak sartzen denari helarazten diola erakusten duten ebidentziak izatea (adibidez, ikuskariak urte bakoitzerako proposatutako helburuak, eta abar).

Gainera, ohar gisa, honako hauek proposatu ziren: 2021-2022 ikasturterako AZ Ikastetxeen Ikuskapena jardueran jarraitzea eta aurrera egitea; memoriei eskatzen zaien gutxieneko formatua estandarizatzea, arriskuak eta aukerak jasotzeko atal bat barne hartzea; web orriaren kudeaketa dokumentala berrikustea; hiru hilabetearen amaierako Ikuskapen Batzordearen bileran datuen analisia egiten jarraitzea ahulezietan/indarguneetan sakondu, lurralde bakoitzeko espezifikotasunak barne hartuta; «Kanpo eskariaren kudeaketa» proiektua baliozkotzen jarraitzea; 20-21 ikasturterako AZetan planteatutako hobekuntza-proposamenak kontuan hartzea; eta, kontrol-orriak aldizka berrikustea jarduerarik itxi gabe ez dagoela ziurtatzeko eta Berrikuntza Zaintzeko taldearen jardueran sakontzeko.

### Euskaliten kanpo-kontrastea

2021eko uztailaren 20an Ikuskaritzak kanpoko kontraste bat egin zuen Euskalitekin, eta, horren ondoren, honako diploma hau lortu zuen. KUDEAKETA AURRERATUARI DIPLOMA

Gainera, kontraste horretan, kudeaketa-ereduaren elementu bakoitzaren hobekuntza bultzatzeko proposamenak egin ziren. Hona hemen, laburbilduak:

**ESTRATEGIA** elementuari dagokionez:

Interes-taldeen helburu, itxaropen eta proiektu estrategikoen identifikazioa sistematizatzea. Erakundearen aliantzak kudeatzeko prozedurak identifikatzea eta ezartzea, eta aliatu diren erakundeekin aliantza horrek dakartzan zereginak adostea. Erakundearen helburuen formulazioari buruzko proposamenak ere egin ziren, aurrerapenak, aldaketak, erronkak edo iritsi nahi den puntua modu kuantitatiboagoan islatzeko, bai eta aurrerapenak bistartzeko adierazleak eta tresnak ere. Adierazle estrategikoak identifikatzea. Prozesuen eta azpiprozesuen eraginkortasunerantz aurrera egiten jarraitzea, prozesu batzuk arintzea eta sinplifikatzea bilatuz, baita prozesu batzuk beste batzuetan integratzea ere, eta estrategiaren komunikazioan lanean jarraitzea, interes-taldeekiko komunikazioan sakonduz.

**BEZERO** elementuari dagokionez

Ikuskaritzako zerbitzuen katalogoa egin ondoren, hura hedatzeko estrategiak ezartzea: kanpo-komunikazioko plana, ikuskaritzak eskaintzen duen zerbitzuaren eta erabiltzaile mota bakoitzaren beharren arteko doikuntza-maila sistematikoki aztertzea.

**PERTSONAK** elementuari dagokionez

Ikuskaritzak gaur egun dituen erronka garrantzitsuenetako biri aurre egiteko prozesuak abian jarri ondoren -ezagutzaren galera ekidin eta ikuskari berrien prestakuntza-, ebaluatu eta sistematizatu egin behar dira. Gainera, erakundeak bere helburuak lortzeko -gaur egungoak, epe ertainekoak eta epe luzeak- behar dituen gaitasunak aztertu behar dira. Dagoeneko badituztenak eta falta direnak identifikatzea. Horiekin bat etorritik, prestakuntza-planak diseinatzea, bai erakundearen premietara bideratuta, bai erakundea osatzen duten pertsonen beharretara.

Honako hauek ere proposatzen dira: barne-komunikazioan sakontzea, ikuskaritzaren egungo antolaketaren eraginkortasuna aztertzea, lan-karga banatzeko prozesuak berrikustea, langileen egoera emozionala zaintzea eta aitortzea, errendimendu-adierazleak identifikatzea eta erakundeak lidergoa nola ulertzen duen definitzea (gaitasunak, jarrerak, portaerak).

**GIZARTEA** elementuan honako hau proposatzen da:

Testuinguru soziala, pertsonala, erakundeak eta abar identifikatzea; Ikuskaritzak bertan izan nahi duen eragin positiboa zehaztea; erakundeak gizarte-ingurunean duen eragina neurtzeko adierazleak definitzea. Orobat, Eusko Jaurlaritzaren gida kontuan hartzea herritarrekiko konpromisoa kudeatzeko -proaktibitatea, kode etikoa, gardentasuna eta kontuak ematea, erantzukizuna eta euskararen erabileraren normalizazioa- eta ingurumena zaintzeari lotutako iraunkortasun-politika bat sartzea.

**BERRIKUNTZA** elementuan honako hau proposatzen da:

Ikuskaritzarako berrikuntza zer den definitu eta berritzeko esparruak identifikatu ondoren, helburu zehatzak dituen berrikuntza-ildo estrategiko bat txertatzea eta BERRIKUNTZA elementua kudeatzeko adierazleak definitzea; horrez gain, testuinguru berritzaile bat sortzea eta ideia berriak biltzeko bideak, tresnak eta prozedurak abian jartzea. Era berean, antzeko beste erakunde batzuek egiten dutena aztertzea eta berri nahi den eremuetan adituak identifikatzea. Azkenik, berrikuntza-proiektuak modu sistematikoan kudeatzea, denbora eta prestakuntza eskainiz.

## VIII. ERANSKINA

### IKUSKARITZAKO ZONAK

#### ARABA (Egoitza: Gasteiz)

**1. zonaldea:** horren barruan daude eskola-bilgune hauek: Aiara, Gasteiz, Arabako Errioxa eta Ekialdeko Lautada. Ikuskari-kopurua: 11.

#### BIZKAIA.(Egoitza: Bilbo)

**1. zonaldea:** horren barruan daude eskola-bilgune hauek: Busturia-Busturialdea, Lea-Artibai, Durangaldea eta Arratia. Ikuskari kopurua 9

**2. zonaldea:** horren barruan daude Txorierrri-Mungia eta Eskuinaldea eskola-bilguneak. Ikuskari kopurua 9

**3. zonaldea:** horren barruan daude eskola-bilgune hauek: Nerbioi eta Bilbo. Ikuskari kopurua 15

**4. zonaldea:** horren barruan daude eskola-bilgune hauek: Enkarterri, Meatzaldea, Barakaldo eta Ezkerraldea. Ikuskari kopurua 11

#### GIPUZKOA. (Egoitza: Donostia)

**1. zonaldea:** horren barruan daude eskola-bilgune hauek: Donostia, Errenteria eta Bidasoa. Ikuskari kopurua 11

**2. zonaldea:** horren barruan daude eskola-bilgune hauek: Goierri, Urola-Kosta, Tolosaldea eta Lasarte. Ikuskari kopurua 10

#### GIPUZKOA. (Egoitza: Eibar)

**3. zonaldea:** horren barruan daude eskola-bilgune hauek: Debagoiena eta Debarrena. Ikuskari-kopurua: 5.



**IX. ERANSKINA**  
**URTEKO PLANAREN ALDAKETAK**  
**IKASKUNTZA, BERRIKUNTZA ETA HOBEKUNTZAKO MUGARRIAK**

Eranskin hau ikasturtean zehar beteko da. Bertan, plan hau aurreikusi gabeko egoeretara egokitzeko egin behar diren aldaketak jasoko dira, bai eta planean zehar gertatzen diren aurrerapen esanguratsuak ere.

## X. ERANSKINA GLOSARIOA

**Eraginkortasuna:** lortutako emaitzaren eta erabilitako baliabideen arteko erlazioa.

**Auditoria:** auditoriaren ebidentziak lortzeko eta objektiboki ebaluatzeko prozesu sistematikoa, independentea eta dokumentatua, auditoria-irizpideak zenbateraino betetzen diren zehazteko.

**Kalitatea:** ezaugarri-multzoko batek baldintzak zenbateraino betetzen dituen.

**Adierazlea:** prozesu, jarduera edo helburu bat objektiboki ebaluatzen laguntzen duen data- edo datu-multzoa.

**Makroprozesua:** kudeaketa-sistema bat osatzen duten prozesu-multzoko bakoitza.

**Prozesua:** elkarri lotutako edo elkarri eragiten dioten jardueren multzoa, sarrera-elementuak emaitza bihurtzen dituztenak.

**Azpiprozesua:** prozesu batean sartzen den jarduera bakoitza.

**Alderdi interesatuak:** kalitatea Kudeatzeko Sistemarentzat garrantzitsua den erabaki edo jarduera batek eragin diezaiokeen, eragin diezaiokeen edo eragin diezaiokeen pertsona edo erakundea.

**Arriskuak:** kalitate-helburuei eragin diezaikekeen guztia. Era berean, bezeroaren beharrak asetzen ez dituzten zerbitzuak sortzeak dakarren arriskua ebaluatu behar da. Arriskueta oinarritutako pentsamenduak emaitza positiboak sortzen dituzten aukerak identifikatzeko ere balio behar du.

**Baliabideak:** kalitatea Kudeatzeko Sistema etengabe ezartzeko, mantentzeko eta hobetzeko erakundeak dituen bitartekoak.

**Lantaldeak:** urteko Planen prozesuak edo azpiprozesuak planifikatzeaz, koordinatzeaz eta horien jarraipena egiteaz arduratzen diren aldi baterako taldeak.

**Lan-batzordeak:** aldi baterako lan-batzordeen helburua kolaborazio-lanak edo laneko beste zeregin edo arlo espezifiko batzuk garatzea da.

**Zuzendaritzaren berrikuspen-txostena:** jarduketa-plan baten memoria deskribatzeko UNE-EN ISO 9001:2015 arauan erabilitako terminoa.

**Berritzegunea:** laguntza-zerbitzu gisa eratuta daude, eta hezkuntza berritzeko eta hobetzeko hezkuntza-tresnak dira. Jarduera-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztiena izango da, sare publikokoa zein pribatukoa.

**V-92:** Hezkuntza Ikuskaritzak erabiltzen duen aplikazio informatikoa.

